



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Hiztegi Batua

Noiz eguneratua: 2011-03-07

a 1 1 iz. 'euskal alfabetoaren lehen letra' 2 iz. "'a" letraren izena'

a bildu (@ ikurraren izena)

a 2 interj.: *a!*

aaïundar (herritarra)

aba* e. **aïta** (elizgizonaren titulua)

ababor iz. [batez ere leku-denborazko kasuetan erabilia]: *ababorrean ur-zulo bat dago.*

abade 1 iz. 'monasterioko burua' 2 iz. *Bizk.* 'apaiza'

abade egin *Bizk.* 'apaiz egin'

abade-etxe edo **abade etxe** *Bizk.* 'apaizetxea'

abade nagusi *Bizk.* 'apaiz nagusia, apaizburua'

abadegai iz. *Bizk.* 'apaizgaia'

abadeki iz. 'apaizgaia'

abadesa

abadetasun 1 iz. 'monasterioko buruaren kargua eta egitekoa' 2 iz. *Bizk.* 'apaizgoa'

abadetu, abade/abadetu, abadetzen. 1 *da/du* ad. 'monasterioko buru egin' 2 *da/du* ad. *Bizk.* 'apaiz egin'

abadetza 1 iz. 'monasterioko buruaren kargua eta egitekoa' 2 iz. *Bizk.* 'apaizgoa'

abadia

abadiñar (herritarra)

abadot iz. *Zah. g.er.* 'liztorra'

abagune

abaigartar (herritarra)

abaila iz. 'abiada, oldarra'

abaildu, abail, abailtzen. 1 *da/du* ad. 'leher egin, nekatu' 2 *da/du* ad. 'pisuaz makurtu'

abaildura

abakando iz. *Homarus gammarus*

abako 1 iz. 'ariketa aritmetikoak egiteko taula boladuna' 2 iz. 'kapitelaren goialdea'

abal iz. *Zuz.* 'bermea'

abala eman

abal-emaile edo **abal emaile** *Zuz.* 'abala ematen duena'

abalatu* e. **abala eman**

abaldun iz. *Zuz.* 'abala eman zaion pertsona'

abalkide

abaltzisketar (herritarra)

abandonatu, abandona, abandonatzen. 1 *du* ad. *Zuz.* 'pertsonak, gauzak edo ekintzak utzi, babesik gabe jarri' 2 *du* ad. h. **utzi**; **alde batera utzi**; **bertan behera utzi**

abandonu

abangoardia

abangoardismo

abangoardista

abaniko iz. *Heg.* h. **haizemaile**

abant

abantean adlag. 'arraunean aurrera eginez'

abant egin 'arraunean aurrera egin'

abantada 1 iz. 'bultzada, abiada' 2 iz. '(besoaz-edo egindako) kolpe-keinua'

abantaila

abantaila eraman *Zah.* 'aldea atera'

abantailatsu izond. *Sin.* **abantailos**

abantailatu, abantaila/abantailatu, abantailatzen. *du* ad. *Ipar. Zah.*

abantailos izond. *Ipar. Sin.* **abantailatsu**

abantar (herritarra)

abantari iz. 'arraunlaria'

abantzatu, abantza, abantzatzen. *da/du* ad. *Ipar. Herr.* h. **aitzinatu**; **aurreratu**

abantzu 1 adlag. *Ipar.* eta *Naf.* 'kasik, ia': *abantzu bi urte baditu hemen garela.*

abantzu izan. *da* ad. 'azkenetan izan, hil hurran izan'

abantzu 2 iz. *Ipar.* 'aurrerapena, aitzinamendua'; 'trebetasuna'

abantzuño adlag. 'ia-ia'

abao iz. *Bizk. Sin.* **abaraska**

abar iz. 'adar txikia'

eta abar (*eta abar luze bat kalko desegokia da; erabil horren ordez eta abar, eta abar*)

abaraska iz. *Sin.* **abao**

abaritz iz. *Quercus coccifera*

abarizia iz. *Zah.*

abarizios izond. *Ipar. Zah.*

abarizti iz. 'abaritz basoa'

abarka

abarkadun iz. eta izond. 'baserritarra'
abarkagile
abarkagintza
abarketa iz. 'espartina'
abarketari iz.
abaro iz. 'itzala, aterpea, babesa'
abaroan egon
abaro egin 'atseden hartu, eguzki-galdatik babestuz' *Sin.* **abaroan egon**
abarrakitu, abarraki, abarrakitzen. *da/du* ad. 'suntsitu'
abarrerria iz. *g.er.*
abarrikatu, abarrika, abarrikatzen. *da/du* ad. *Naf.* 'abarrakitu'
abarrots* e. **harrabots**
abartegi
abartsu
abartu, abar/abartu, abartzen. *da* ad. 'adarkatu': *damurik, hainbeste adaxkatara da abartua gure euskara zaharra!*
abartzuzar (herritarra)
abasberuan* e. **abespeluan**
abasto adlag. *Herr.* 'ugari'; 'nahikoa'
abastu* e. **abasto**
abat iz. *Batez ere Bizk.* h. **abade**
abata iz. 'usoak erakartzeko edo jaitsarazteko hegazti-irudia'
abatari iz.
abatetxe* e. **abade-etxe** edo **abade etxe**
abatz
abaurrear (herritarra)
abaurregaindar (herritarra)
abaurrepetar (herritarra)
abazera (hizkuntza)
abazuza* e. **babazuza**
abdikatu, abdika, abdikatzen. *du* ad.
abdomen
abdominal izond. *Anat.*
abduktore izond. *Anat.*
abede* e. **alfabeto**
abegi
abegitsu
abelazkuntza
abelbide
abelburu
abeldi* e. **fauna**

abeldun
abelera iz. *Gip.* 'egoera'
abeletxe
abelgorri
abelgorriki iz.
abeltegi
abeltxe* e. **abere xehe**
abeltzain
abeltzaintza
abel xehe* e. **abere xehe**
abemaria iz.: *hiru abemaria errezatu zituen; abemarietan gera dadila danbolina.* *Sin.* **agurmaria**
abemaria-ezkila edo **abemaria ezkila** *Sin.* **ilun-ezkila**
abemarietako iz.: *dorreko kanpaiak abemarietakoa jo zuenean.*
abenda iz. *g.er.* h. **arraza**
abenderri* e. **nazio**
abendu 1 1 iz. 'urtearen hamabigarren hila' 2 iz. 'Liturgia urteko lehen aldia, Gabonak aurrekoa'
abendu 2 iz. *Bizk.* 'mirua'
abendualdi
abenida* e. **etorbide; hiribide**
abeniko iz. *Zah.* 'hitzarmena'
abenitu, abeni, abenitzen. *da* ad. *Zah.* 'elkar hartu, ondo konpondu'
abenka
abentura
abenturazale
aber* e. **ea**
aberasbide
aberasgarri
aberaska* e. **abaraska**
aberaskeria iz.: *euskararen aberastasunak eta aberaskeriak.*
aberaski 1 adlag.
aberaski 2 iz. *g.er.* 'aberasasuna, ondasuna'
aberaskume
aberaspide* e. **aberasbide**
aberasasun
aberasste iz.: *uranioaren aberastea.*
aberasstu, aberats/aberasstu, aberasten. *da/du* ad.
aberas
aberatsaile* e. **aberasgarri**

abere**abere-hiltzaile** iz.**abere-lapur** edo **abere lapur****abere larri****abere-talde** edo **abere talde****abere xehe** 'ardia eta ahuntza'**aberekeria****abereki 1** adlag. 'abereen eran'**abereki 2** iz. 'abere-okela'**abereki 3** iz. eta izond. *g.er.* 'abereen moduan jokatzeko den pertsona':
*horrela, bere izaera aberekia ase zuen.***aberetasun****aberetiar** izond. *Sin.* **aberezko****aberetu**, abere/aberetu, aberetzen. *da/du* ad. 'gizakia abereen antzeko bihurtu, hauen tasunak hartuz'**aberezko** izlag.: *itxura basati eta aberezkoa. Sin.* **aberetiar****aberia** 1 iz. h. **matxura** 2 iz. 'kalte handia'**aberindar** (herritarra)**aberkide****aberkoi** izond.: *olerki aberkoiak.***aberrazio** iz. *Tekn.***aberri****Aberri-egun** edo **Aberri egun****aberrigabe** izond.**aberriratu**, aberrira, aberriratzeko. *da/du* ad.**abertimendu** iz. *Ipar. Herr.* h. **abisu****abertitu**, aberti, abertitzen. *du* ad. *Herr.* h.**ohartarazi; jakinarazi; abisatu****abertzale****abertzalekeria****abertzaletasun****abertzaletu**, abertzale/abertzaletu, abertzaletzen. *da/du* ad. 'abertzale bihurtu'abes* e. **abesti; kantu****abesbatza****abeslari****abespeluan** adlag. *Bizk.* 'jo eta ke'**abestalde****abestaldi** iz. 'kantaldia'**abesti****abestu**, abes, abesten. *du* ad.abeze 1* e. **alfabeto****abeze 2** iz. 'hasi-masiak': *abezean da oraindik ikasgai honetan.***abiaburu****abiada****abiadan** adlag.: *abiadan atera zen etxetik.*abiadore* e. **pilotu; hegazkinlari****abiadura** 1 iz. *Ipar.* eta *Naf.* 'hastapena' 2 iz. *Heg.* 'lastertasuna'**abiadura-aldagailu** edo **abiadura aldagailu****abiadura-neurgailu** edo **abiadura neurgailu****abiadura-palanka** edo **abiadura palanka****abiagailu** iz. 'motorra abiarazteko gailua'**abiagune****abialdi****abiamen** 1 iz. *Batez ere Ipar.* 'hasiera':
abiamen ezin hobea hartu du [ikuskitun handiak]. 2 iz. *Batez ere Ipar.* 'prestaera': *heldu den igandean ditugu herriko festak; ez nolana hikoak, abiamenen arabera.***abian** 1 adlag.: *lan hau abian jarri zen eguna; joateko abian da.* 2 adlag. 'berehala': *otoi errozu abian.***abiapuntu****abiarazi**, abiaraz, abiarazten. *du* ad.**abiarazle** iz.: *Windows abiarazlea.***abiasari** iz. 'taxietan, abiatzeagatik ordaintzen den diru kopurua'**abiatu**, abia, abiatzen. *da/du* ad.:
*jendarmeeek ikerketak abiatuak dituzte.***abiatze****abiazio****abidjandar** (herritarra)**abidostar** (herritarra)**abil****abildu**, abil/abildu, abiltzen. *da* ad. 'trebatu'**abilezia****abilidade** iz. *Herr.* 'abilezia, trebetasuna'**abilki****abio** iz. *Zub.***abioi** iz. h. **hegazkin; aireko**

abioneta* e. **hegazkin txiki; turismo-hegazkin** edo **turismo hegazkin; kirol-hegazkin** edo **kirol hegazkin**

abisal

abisatu, abisa, abisatzen. *du edo dio* ad. [*du (Ipar.) edo dio (Heg.)*]

abisu

abitu

abitu hartu

abitu-hartze edo **abitu hartze**

abixoi iz. *Atherina sp.*

abizari

abizen iz. 'pertsonek deitura'

abkhaziera (hizkuntza)

ablatibo

ablazio

ablitastar (herritarra)

abokatu

abokatutza

abolitu, aboli, abolitzen. *du* ad. *Sin.*

ezeztatu

abolizio iz. *Sin.* **ezeztatze**

abolizionismo

abolizionista

abonamendu iz.: *Musika Hamabostaldiko abonamendua.*

abonatu 1, abona, abonatzen. 1 *du* ad.

'aintzat, ontzat hartu' 2 *du* ad.

'goraipatu' 3 *da/du* ad. h. **harpidetza**

egin

abonatu 2 iz. h. **harpidedun**

abondant izond. *Zah.* 'nasaia, oparoa, ugaria'

abondantzia iz. *Zah.* 'nasaitasuna, oparotasuna, ugaritasuna'

abonu 1 iz. 'laudorioa'

abonu 2* e. **ongarri**

abonu 3* e. **abonamendu**

abordatu, aborda, abordatzen. *du* ad. *Itsas.*

abordatze

aboro* e. **haboro**

abortatu, aborta, abortatzen. *du* ad.

abortatze

abortu

abortza

abots* e. **ahots**

abrasio iz. *Geol.*

abrigo iz. *Heg.* h. **beroki**

abrigu iz. *Bizk.* 'keinua, imintzioa'

abrikot iz. *Prunus armeniaca*

abrikotondo iz. *Prunus armeniaca*

absente

absentismo

absentzia

abside

absintio* e. **asentsio-belar** edo **asentsio belar**

absolbitu, absolbi, absolbitzen. *du* ad.

absolbizio iz. *Zah.* 'absoluzioa': *Aralarko absolbizio eguna.*

absolutibo izond. *Hizkl.*

absolutismo

absolutista

absolutu

absolutuki

absolututasun

absoluzio

abstenitu, absteni, abstenitzen. *da* ad.

abstentzio

abstinentzia 1 iz. 'haragi-uztea, mehea' 2

abstinentzia 2 iz. *Med.:* **abstinentzia-sindromea.**

abstraktu

abstrakzio

absurdo

abudhabiar (herritarra)

abudo* e. **agudo**

abujar (herritarra)

aburdiko* e. **burko; bururdi**

aburna iz. 'loina'

aburska* e. **ahuspez**

aburu iz.: *zenbat buru hainbat aburu;* *aburu bateko, aburu bereko.*

-ren aburuz

aburukide

aburumenka adlag. 'iritzira'

abusatu 1, abusa, abusatzen. *du* ad.

abusatu 2, abusa, abusatzen. *da* ad. *Ipar.* 'jostatu, dibertitu'

abusu 1 iz. 'erabilera okerra, bidegabea, gehiegizkoa, etab.' 2 iz. *Zuz.*

abuztu

abzesu

abzisa

abzisa-ardatz edo **abzisa ardatz**

accesit

adabaki

adabakitu, adabaki/adabakitu,
adabakitzen. *du* ad. h. **adabatu**

adabatu, adaba, adabatzen. *du* ad.

adabegi**adabegitsu**

adabeso iz. 'zuhaitzaren adar nagusietako bakoitza'

adabtar (herritarra)

adabu* e. **adabaki**

adaburu

adaburutu, adaburu/adaburutu,
adaburutzen. 1 *du* ad. 'zuhaitzari adar-abarrak soildu' 2 *da* ad. 'zuhaitza adar-abarrez hornitu'

adagio iz. *Mus.*

adaje

adakera iz. 'adarren multzoak duen izaera'

adaki

adakitu, adaki/adakitu, adakitzen. 1 *du* ad. 'adarrei adaxkak eta hostoak kendu' 2 *du* ad. 'adar moztuez egurra egin'

adaptatu* e. **egokitu; girotu; laketu; moldatu**

adar 1 iz. 'animalien hezur luzakina': *akerrak adarrak okerrak ditu; adar-oker*. 2 iz. 'zuhaitzen enborretik ateratzen den besoa': *pagoaren adarrak moztu*. 3 iz.: *adar-hotsa entzun*. (musika tresna) 4 iz. 'bidearen, zientzien, eta abarren zatia' 5 iz. 'aulkiaren eta ohearen atzeko aldea' 6 iz. (zapatak janzten laguntzeko tresna)

adar-motz edo **adarmotz**

adarra jo: *niri behintzat ez didazu adarrik joko!*

adar-zulo edo **adar zulo** 'uztarriaren zatia'

adarbakar 1 izond. 'adar bakarra duena' 2 iz. 'adar bakarreko animalia mitologikoa'

adarbakoitz izond. eta iz. 'adarbakarra'

adardun

adareta iz. (golde mota)

adargabe izond.

adarjotzaile

adarjotze

adarka adlag.

adarka egin 'adarkatu'

adarkada**adarkadura**

adarkari izond. 'adarka egiten duena'

adarkatu, adarka/adarkatu, adarkatzen. 1

du ad.: *zezenak adarkatu zuenean*. 2

da ad.: *bidea adarkatzen den gunean*.

adarki iz.: *adarkizko orrazia*.

adarmotz edo **adar-motz** izond. 'adar bat behintzat falta zaiona edo moztua duena'

adaro iz. (hortzik gabeko eskuare modukoa, ukuilu eta abarrak garbitzeko erabiltzen den tresna)

adarreko iz. (eduki-neurria)

adarrondo iz. *Ipar*. 'adabegia'

adarrondotsu izond. *Ipar*. 'adabegitsua'

adartsu

adartu, adar/adartu, adartzen. *da* ad. 'adarrak atera'

adartzabal iz. *Dama dama*

adasdun

adats iz.: *adats-izpiak zituen urrearen pareak*.

adausi

adausi egin

adausika**adaxka****adberbio**

addar iz. *Zub*. (deabruaren izena)

addisabegar (herritarra)

adei

adei-lege edo **adei lege** 'adeitasuna'

adeitasun iz.: *adeitasunez*.

adeitsu

adeitsuki adlag. 'adeitasunez'

adelatu, adela, adelatzen. *da/du* ad. *Batez ere Zub*. 'prestatu, apailatu'

adelazale iz. *Zub*.

adelu 1 iz. 'prestaketa' 2 iz. 'apaingarria'

adendar (herritarra)

adesara adlag. *Zub*. 'arestian'

adi 1 adlag.

adi egon: *doinu horren adi nago; umeari adi egon dira; begiak lurrera adi*.

adi 2 iz.

adia galdu: *ahozabalka eta adia galdurik egon da goiz osoan.*

adia iz. 'auhena, deitorea': *hemen aitortu nahi ez duzuna han aitortuko duzu adiaz eta negarrez.*

adiabatiko

adiagile iz. 'erostaria'

adiaka adlag.

adiakari 1 iz. 'erostaria' 2 iz. *Syrnium aluco* (hegazti harraparia)

adiakatu, **adiaka**, **adiakatzen**. *da ad.*

adibide

adib. (*adibidez* -en laburdura)

adibidez adlag.: *zuk, adibidez, ez duzu hitza bete.*

adiera

adierazezin

adierazgailu* e. **seinale**

adierazgarri 1 iz.: *besoan zeraman taldearen adierazgarria.* 2 izond.: *adibide adierazgarriak aipatu ditu.*

adierazgarritasun

adierazi 1, **adieraz**, **adierazten**. *du ad.*

adierazi 2 iz.: *adierazlea eta adierazia.*

adierazkizun iz. 'adierazi (behar) dena'

adierazkor izond.: *hitz adierazkorren ortografia.*

adierazkortasun

adierazle

adierazmolde

adierazpen iz.: *adierazpen askatasuna.*

adierazpide

adierazte

adieraztera eman* e. **aditzera eman**

adierraz

adierraztasun

adietan eman *Bizk.* 'aditzera eman'

adiezin izond. 'ulergaitza'

adigabe

adigabetu, **adigabe/adigabetu**, **adigabetzen**. *da/du ad.*

adigai

adigaitz

adigaiztasun iz. 'ulergaitzasuna'

adigarri 1 iz. 'azalpena'; 'adibidea' 2 izond. 'ulergarria'; 'aditza merezi duena, gogoangarria': *ipuinaren ondorio adigarriak.*

adigarritasun iz. 'ulergarritasuna'

adigera (hizkuntza)

adiguri iz. *Heg.* 'oparia'

adikatu, **adika**, **adikatzen**. *da ad.* 'nekatu'

adikune iz. *Bizk.* 'begirada'

adimen

adimen urriko

adimen-urritasun edo **adimen urritasun**

adimendu iz. h. **adimen**

adimendun izond. 'arrazionala'

adimengabe izond.

adimentsu izond. 'adimen handi, zorrotzekoa'

adimenzale

adin 1 iz. 'edadea' 2 iz. *Bizk. Zah.* 'adimena'

adinean sartu

adinetara etorri

adinetara heldu

adin handi

adin izan. *da/du ad. Ipar. eta Naf.:* *Pello eta biok adin(ak) gara* (adin berekoak).

adin nagusiko *Sin.* **adindun**

adin-nagusitasun edo **adin nagusitasun** iz. 'adindunaren egoera' **adin txikiko*** e. **adingabe**

adina

adinean

adinako

adinaldi

adinbat 'adina, beste'

adinbateko izlag.

adindu, **adin/adindu**, **adintzen**. *da ad.*

adindun izond. *Anton.* **adingabe**

adineko

adineratu, **adinera/adineratu**, **adineratzen**. *da ad.*

adinetaratu, **adinetara/adinetaratu**, **adinetaratzen**. *da ad.* h. **adineratu**

adingabe izond. *Anton.* **adindun**

adingabeko izlag.

adingabetasun

adinkide

adinon

adinonez

adintsu 1 izond. 'adin handikoa'

adintsu 2 izond. 'ia adin berekoa'

adintsu izan 'ia adin bereko izan':
adintsu(ak) dira Joanes eta Martin.

adio

adio egin edo **adioak egin** 'adio esan'

adio erran edo **adioak erran**

adio esan edo **adioak esan**:

aberastasunei adio esan.

ez adiorik

adiostar (herritarra)

adiposo izond.: *ehun adiposoa.*

adiskidantza

adiskide

adiskide handi 'adiskide mina'

adiskide kutun 'adiskide mina'

adiskide mami 'adiskide mina'

adiskide min

adiskidego iz. *Lap. eta Naf.*

'adiskidetasuna, adiskidantza'

adiskideki adlag. *g.er.* 'adiskidetasunez'

adiskidetasun

adiskidetsu 1 izond.: *harreman*
adiskidetsuak. 2 adlag.: *adiskidetsu*
hitz egin zigun.

adiskidetu, adiskide/adiskidetu,
adiskidetzen. *da/du* ad.

adiskidetza iz. 'adiskidetasuna'

adiskidetzaile

adiskidetzako iz. 'adiskidetzat hartzen
dena'

adiskidetze iz.: *adiskidetzeko ekitaldia.*

aditasun iz. 'adi egotea, arreta'

aditibo* e. **gehigarri**

aditu 1, adi, aditzen. 1 *du* ad. 'entzun' 2 *du*
ad. 'ulertu' 3 *du* ad. 'usaimenaz
sumatu'

elkar aditu

ez aditu egin edo **ez adituarena egin**

aditu 2 izond. eta iz.: *lege kontuetan*
adituek diotenez.

aditz

aditz-izen *Hizkl.*

aditz-joko *Hizkl.*

aditz laguntzaile *Hizkl.*

aditz nagusi *Hizkl.*

aditz trinko *Hizkl.*

aditzaile iz.: *aditzaile onari, hitz gutxi.*

aditze

aditzea izan: *badut horren aditzea.*

aditzez adlag.: *ez dut aditzez baizik*
ezagutzen.

aditzen eman *Bizk.* 'aditzera eman'

aditzera iz. *Gip. h.* **aditze**

aditzera eman (*jakitera eman* baino
egokiagoa da)

aditzoin

aditzondo

adiuntza iz. 'sasoia, garaia'

adiuntzaz adlag. 'garaiz'

adiurre iz. *Zah. h.* **aiurri**

adiutu izond. h. **aiutu**

adizkera

adizki

adizkitegi iz. *Gram.*

adizlagun

adjektibo

adjudikatu, adjudika, adjudikatzen. *du* ad.

adjudikazio

adjudikaziodun

adlatibo izond. *Gram.*

administradore* e. **administratzaile**

administralgo* e. **administrazio**

administrari iz. 'administrazioko langilea':
administrariak, administrari
laguntzaileak.

administrarritza

administratibo izond.: *hiriburu*
administratiboa.

administratu, administra, administratzen.
du ad.

administratzaile iz. 'administratzen duena'

administrazio

administrazio-kontseilu edo

administrazio kontseilu

administrazio-zuzenbide edo

administrazio zuzenbide

admiratu* e. **amiratu**

adobe iz. *Tekn.*

adoleszente iz. h. **nerabe** (eta,
dagokionean, *gaztetxo* ere erabil
daiteke)

adoleszentzia iz. h. **nerabezaro**;
nerabetasun

adoptatu, adopta, adoptatzen. *du* ad. 'seme
edo alabatzat hartu'

adopzio iz.: *adopzio-legea*.
adoragarri izond.: *Jainkoa bakarrik da adoragarria*.
adorarazi, adoraraz, adorarazten. *dio* ad.
adoratu, adora, adoratzen. *du* ad.
adoratzaile
adorazio
adore
adore eman
adoregabe izond.
adoregabetu, adoregabe/adoregabetu, adoregabetzen. *da/du* ad.
adoretsu
adoretu, adore/adoretu, adoretzen. *da/du* ad.
adornatu, adorna, adornatzen. *du* ad. *Heg. Beh.* 'apaindu'
ados
ados egon
ados etorri *Sin. bat etorri*
ados izan
ados jarri
adostasun
adoste iz. '(jokoan) berdinketa'
adostu, ados/adostu, adosten. 1 *da/du* ad. 'ados egon, jarri' 2 *da/du* ad. 'elkar hartu' 3 *da/du* ad. 'berdindu'
adreilu
adreiluztatu, adreiluzta, adreiluztatzen. *du* ad.
adrenalina
adrendu iz. *Naf.* 'trebetasuna'
adrendua hartu *Naf.* 'era hartu': *makina berriari adrendua hartu dio*.
adleri* e. **leinu**
adret izond. *Zub.* 'trebea'
adrezatu, adreza, adrezatzen. *zaio/dio* ad. *Ipar. g.g.er.* 'zuzendu, norabideratu'
adrezia iz. *Ipar. Herr.* 'trebetasuna'
adriatiko izond.: *Itsaso Adriatikoa*.
adskribatu, adskriba, adskribatzen. *du* ad. *Zuz.*
adsortzio iz. *Kim.*
adstratu iz. *Tekn.*
adu iz. *Batez ere Bizk.* 'zoria, patua'
adua
adua-zerga edo **adua zerga** *Sin. muga-zerga, muga zerga*

aduanazain
adulterio
adunar (herritarra)
adur 1 iz. *Sin. lerre*
adur-zapi edo **adur zapi**
adur 2 1 iz. *Gip.* 'zoria' 2 iz. *Gip.* 'ahalmen ezkutu harrigarria'
adurretako* e. **adur-zapi** edo **adur zapi**
adurti izond. *Sin. lerdetsu*
aerobiko izond. *Tekn.*
aerobio iz.
aerodinamika iz. *Fis.*
aerodinamiko
aerodromo
aeroespazial izond.
aeroklub
aerolabaingailu
aerolito
aerometro
aeromodelismo
aeronauta
aeronautika
aeronautiko
aerosol
aerostatika
aerostato
aetz (herritarra)
afaitatu, afaita, afaitatzen. *da/du* ad. *Ipar. Zah.* 'apaindu'
afalaitzin iz. *Ipar.* 'afalaurrea'
afalaurre
afaldar iz. h. **afaltiar**
afaldu, afal, afaltzen. *du edo da* ad. [*du* (*Heg.*) edo *da* (*Ipar.*)]
afalondo
afalordu
afaloste
afaltegi
afaltiar
afaltoki
afan iz. *Heg. h. zaletasun; harrokeria; grina*
afari
afari arin 'afariusia, barau-egunetako afaria'
afari-lege edo **afari lege** 'afari arina': *afari-legea egin dugu*.

- afari-merienda**
afaritan: *anitz edan ote zuten afaritan?*
afaritara: *goazen orain afaritara, gero lotara.*
afariketa: *egingo dugu afariketan, ni aita eta zu ama? (haur-jokoa: afariketan egin, ibili, jardun esapideetan erabiltzen da batez ere)*
afarite iz. [batez ere leku-denborazko kasuekin erabiltzen da]: *afariten ari dira nonbait; jarri ziren mahaian afariteko gogo handiz; deitu gaituzte afaritera.*
afariusi iz. 'afari arina, barau-egunetako afaria'
afasia
afasiko
 afektatu* e. **erasan; hunkitu; ukitu**
afektibitate
afektibo
afektibotasun
afektu
afera
afganiar (herritarra)
afganistandar (herritarra)
 afgano* e. **afganiar; afganistandar**
afiliatu, afilia, afiliatzen. *du/da* ad.
afiliazio
afin izond. *Mat., Kim.*
afinatu, afina, afinatzen. *du* ad. *Heg. Mus.*
 h. **tonuan jarri; aurrindu**
afinitate iz. *Mat., Kim., Bot.*
 afirmazio* e. **baieztapen; baiezko**
afixa iz. *Sin. kartel*
afizio iz. *Heg. Beh.* h. **zaletasun**
afizionatu 1 iz. *Heg. Beh.* h. **zale** 2 iz. *Heg. Beh.* h. **amateur**
afoinu iz. *Heg.* 'haize hezea, hezetasuna'
afonia
afoniko
aforismo
 aforo* e. **edukiera; neurketa**
afrikaans (hizkuntza)
afrikaerditar (herritarra)
afrikaner
afrikar
- afro** [hitz elkartuetako lehen osagai gisa erabiltzen da]
afrodisiako
afrontu 1 iz. *Bizk.* 'haizea eta euria batera' 2* iz. *Ipar.* e. **afrontu**
afrontu iz. *Batez ere Ipar.* 'laidoa'
 afusilatu* e. **fusilatu**
aga iz. *Hist.*
agabe iz. *Agave sp.*
 agai* e. **haga**
 agaka* e. **alfabeto**
 agaramondar* e. **agaramontar**
agaramontar
agata iz. (harribitxia)
 agelki* e. **borragoma**
agenda
agente
agentzia
agerbide
agergarri iz.: *gure bihotzeko saminaren agergarritzat.*
ageri izond.: *leku ageria.*
agerian
ageri-agerian eduki
ageri-agerian egon
ageri-agerian jarri
agerian eduki
agerian egon
agerian jarri
agerigabe izond. 'ezkutukoa'
ageri izan, ageri, ageriko. *da/du* ad.: *garbi ageri da horren bihotz ona; ageri duzu ez zarela hemengoa.*
ageriki
ageriko izlag.: *politikarien ageriko bizitza; ageriko aurrezkia. Sin. jendaurreko; publiko*
agerira adlag. [*agerira atera, agerira ekarri* gisako esapideetan erabilia]
ageririk adlag. *Ipar.* 'ageriki'
ageriz adlag. 'ageriki'
agerizko izlag. h. **ageriko**
agerkai 1 iz. 'agiria' 2 iz. 'erakuskaria, froga'
agerkari
agerkera

agerketa 1 iz. h. **agerkera**; **agertze**;
agerraldi 2 iz. h. **agerpen**; **agerraldi**;
agerkunde
agerki iz. *g.er.* 'agerkaia'
agerkizun
agerkunde 1 iz. 'agerpena' 2 iz. 'epifania'
goi-agerkunde 'errebelazioa'
agerleku
agermen iz. *Zah.* h. **agerpen**
agerpen
agerpide* e. **agerbide**
agerraldi
agerrarazi, agerraraz, agerrarazten. *du* ad.
agerri izond. *Zah.* h. **ageri**
agerrian* e. **agerian**
agerriki* e. **ageriki**
agerrira* e. **agerira**
agerritik* e. **ageritik**
agerriz* e. **ageriz**
agertoki
agertu 1, ager, agertzen. *da/du* ad.
agertu 2 iz.
agertu bat egin
agertzaile
agertze
agian 1 adlag. 'beharbada, apika' 2 adlag.
Ipar. 'oxala': *agian luzaz biziko dira*
elkarrekin.
agiandu* e. **agiantzatu**
agiantza iz. *Lap.* eta *BNaf.* 'desira
(normalean ona)': *Eguberriko*
agiantzak.
agiantzatu, agiantza/agiantzatu,
agiantzatzen. *du* ad. *Lap.* eta *BNaf.*
'desiratu (zerbait ona)'
agidanean adlag. 'dirudienez, antza denez'
agidanez adlag. 'agidanean'
agi denez* e. **agidanez**
agilando iz. *Heg. Beh.* h. **gabonsari**
aginde* e. **agindu**
agindu 1 iz.
agindu-email
aginduetara egon edo **agindura**
egon
aginduetara jarri edo **agindura**
jarri
-en aginduetara edo **-en agindura**
agindu 2, agin, agintzen. *du* ad.

aginduka adlag.: *goizean goiz hasten zen*
deiadarka eta aginduka.
agindupe iz. [batez ere leku-denborazko
kasuetan erabilia]
agindupean
agindupera
agindupetik
agindupeko iz.: *bere zerbitzari eta*
agindupeko guztiak bidera irten
zitzazkion.
aginduzko 1 izlag. 'nahitaez bete
beharrekoa': *aginduzko araua*;
aginduzko proba. 2 izlag.
'hitzemandakoa'
aginean 'zorian': *hil aginean (egon); ito*
aginean.
aginik *g.er.* h. **aginean**
aginpean* e. **agindupean**
aginpeko* e. **agindupeko**
aginpide
agintaldi
agintarau* e. **agindu**
agintarazi, agintaraz, agintarazten. *dio* ad.
agintari
agintaritza
aginte
aginte-makila edo **aginte makila**
agintebide* e. **aginpide**; **eskumen**
agintedun
agintekera* e. **agintera**
agintekeria
agintepide* e. **aginpide**; **eskumen**
agintera iz. *Gram.*
aginterri iz. *g.er.* 'erreinua, erresuma,
estatua'
agintza iz. h. **agintzari**; **promes**
agintzaile
agintzari
agintze 1 iz. 'agintea' 2 iz. 'agindua'
agira egin* e. **agiraka egin**
agiraka adlag. *Batez ere Bizk.*
agiraka egin
agirakaldi
agirakari iz. *Batez ere Bizk.*
agirakatu, agiraka/agirakatu, agirakatzen.
du ad. *g.er.* h. **agiraka egin**
agiri iz. 'dokumentua, izkribua,
adierazpena'

agirika* e. **agiraka**
 agiriko* e. **ageriko**
agiritegi iz. 'artxiboa'
agirizain iz. 'artxibozaina'
agitu, agi, agitzen. *da* ad. 'gertatu'
 agi zenez* e. **agidanean**; **agidanez**
aglomeratu 1, aglomera, aglomeratzen. *da*
 ad. *Tekn.*
aglomeratu 2 iz. eta izond. *Tekn.*
aglutinatu, aglutina, aglutinatzen. *du* ad.
aglutinazio iz. *Gram.*
agnostiko izond. eta iz.
agnostizismo
ago! interj. (abereekin erabiltzen den
 agindu hitza)
agoa iz. 'sutegian urtutako burdin zatia'
 agoazil* e. **aguazil** (*Herr.* , bestela
 udaltzain)
agoilatu, agoila, agoilatzen. *du* ad. *Ipar.*
 'upelaren edukia urritu ahala, osatzea'
agoiztar (herritarra)
agondu, agon, agontzen. *da* ad. 'etzanda
 dagoenak gorputzaren goiko erdia
 jaso, eserita gelditzeko, (ohean) eseri'
agonia
agoniako iz. 'norbait hil dela adierazten
 duen kanpai-joaldia'
agoñu iz. *Zub.* 'kemena, adorea'
agor 1 izond.: *iturri agorra*. 2 iz. 'lehortea'
 3 h. **irail**
agorra egin *g.er.* '(putzua) hustu, urik
 gabe utzi'
agorrear adlag. *g.er.:* *agorrear*
lanean aritu (ezer jan gabe).
agorkor
agor-liho edo **agor liho** iz. (irailaren azken
 aldean ereiten den liho mota)
agorraldi iz. *Sin.* **agorte**
agorraz, agorraz, agorrazten. *du* ad.
agorreria iz. *g.er.* 'agortea, gabezia'
agorrezin izond. 'ezin agortuzkoa'
agorril iz. h. **abuztu**
agorrola
agortasun
agorte iz. *Sin.* **agorraldi**
agortu, agor/agortu, agortzen. *da/du* ad.
ezin agortuzko
agortzaile

agot
 agotz* e. **ahotz**
 agrabiatu* e. **iraindu**; **laidotu**
 agrabio* e. **irain**; **laido**
agradagarri izond. *Ipar.*
agradatu, agrada, agradatzen. *da/zaio* ad.
Ipar.: *Jainkoari agradatzen zitzaion*
tenplua; hartaz agradatu zen.
 agramondar* e. **agaramontar**
 agramontar* e. **agaramontar**
 agramontes* e. **agaramontar**
agregatu iz. *Tekn.:* *agregatu kimikoak.*
agronomia
agronomo iz. eta izond.
 aguakate* e. **ahuakate**
aguantatu, aguanta, aguantatzen. *du* ad.
Heg. Herr. 'iraun, eraman, jasan, eutsi'
aguardient iz. *Ipar.* 'pattarra'
aguazil iz. *Herr.*
agudezia iz. *Batez ere Ipar. Zah.*
 'agudotasuna, trebetasuna'
agudo 1 adlag. 'laster' 2 izond. *Ipar.*
 'trebea'
agudotasun
agudotu, agudo/agudotu, agudotzen. 1
da/du ad. 'agudoago, lasterrago
 gertatu' 2 *da/du* ad. *Ipar.* 'trebatu'
aguilartar (herritarra)
agur 1: *entzuleok, agur!* (diosal hitza) 2 iz.
 'agurtzea': *bere agurra helarazi digu*
errektoreak.
agur egin
agur esan
aguraindar (herritarra)
agure (hitz markatua *da*, gutxiespen balioa
du eskuarki, eta ezin erabil daiteke
adineko -ren sinonimo oso balitz
 bezala)
 agure-atso* e. **atso-agure**
aguretasun
aguretu, agure/aguretu, aguretzen. *da/du*
 ad.
aguretxo iz. (*agure* -ren txikigarria)
agurgarri
agurgarritasun
agurka
agurkatu, agurka/agurkatu, agurkatzen. *du*
 ad. 'agurtu, agur egin'

agurmaria iz. *Sin.* **abemaria**
 aguro* e. **agudo**
agur on iz. *Zah.* *g.er.* 'gurtza, jaurespena'
agurtu, agur/agurtu, agurtzen. *du ad.*
agurtza 1 iz. 'gurtza' 2 iz. *g.g.er.*
 'arrosarioa'
agurtzaile iz. *g.er.*
agustindar
ahabia iz. *Vaccinium myrtillus*
ahago iz. *Rumex patientia*
ahagorri iz. *g.er.* h. **ahago**
 ahagozo* e. **ahagozo**
ahaide
 Ahaide Nagusi pl.
ahaidego iz. 'ahaidetasuna'
ahaideria iz. 'senitarte, ahaideen multzoa'
ahaidetasun
ahaidetu, ahaide/ahaidetu, ahaidetzen.
da/du ad. 'ahaide bihurtu'
ahaiko 1 iz. *g.er.* h. **ahaide** (pl.) 2 iz. *g.er.*
 h. **ahaidetasun**
ahaire iz. *Zub.* 'doinua'
ahakar iz. *Sin.* **aharra**
ahakar egin
ahakarrean
ahakartu, ahakar/ahakartu, ahakartzen. *da ad. Sin.* **aharratu**
ahal 1 iz.: *ahala du hori egiteko.* (Era burutuaren ondoan, 'ahal d(ir)en guztia(k)': *esan ahalak esan dizkiote elkarri; egin ahalak egin dituzte*)
ahala egin: *nire ahala egin dut; bere ahala egiten duena.*
ahala eman
ahal 2 [partikula modala, desira adierazten duena]: *egingo ahal du!, ez ahal da eroriko!*
ahala 1 adlag. [aditzaren era burutuaren ondoan] 'en neurrian': *iritsi ahala eseri dira; platerak atera ahala husten ziren.* 2 adlag.: *koka ahala jende sartu zen.*
ahalara adlag. *Zah.:* *handiek nahikara, ttipiek ahalara.*
ahalaz *Lap.* eta *BNaf.* 'ahal den neurrian': *euskara ahalaz garbia darabil; saiatzen dira ahalaz gordetzen*

lehengo ohiturak; baina horretarako borrokatu behar eta ahalaz denak elkarrekin.

ahalbait* e. **albait**
ahalbide
ahalbideratu, ahalbidera, ahalbideratzen.
du ad. h. **ahalbidetu**
ahalbidetu, ahalbide/ahalbidetu, ahalbidetzen. *du ad.*
ahaldun iz.: *Batzar Nagusietako ahaldun edo ordezkari* 'apoderado' (*Bizkaian*) eta 'procurador' (*Araba eta Gipuzkoan*) esaten zitzaien.
 ahaldundegi* e. **aldundi; diputazio**
 ahaldundi* e. **aldundi; diputazio**
ahaldungai
 ahalegar* e. **aholegar**
ahalegin iz. *Sin.* **eginahal**
ahalegina adlag. 'ahaleginean, ahal den neurrian': *ahalegina moztuta ere, nahiko luzea izango zen.*
ahalegina egin edo **ahaleginak egin**
ahaleginean
ahalegindu, ahalegin/ahalegindu, ahalegintzen. *da ad.:* *esaten, (bukatzen, etab.) ahalegindu.*
ahaleginka adlag. *g.er.* 'ahaleginak eginez'
ahalegintxo iz. (*ahalegin* -en txikigarria)
ahalera iz. *Gram.*
ahalezko
ahalgabe izond. *g.er.*
 ahalge* e. **ahalke**
ahalgo iz. 'kemena': *adinarekin ahalgoak joan zaiizkit.*
ahalguztidun
ahalguztiduntasun
ahalik edo **ahalik eta** 1 (adlag.ekin: *ahalik maizen, sarrien, etab. baino hobeto ahalik maizena, ahalik sarriena, etab.*) 2 (izond.ekin: *ahalik garbiena, osoena, ederreña, etab.*) 3: *ahalik eta goizenik merkatura joan.*
ahal izan, ahal izaten, ahalko/ahal izango: *ekarri ahal izateko; etortzen ahal da; ahal dela; ahal den sailik handiena; ezin konta ahal.*

ahal adina
ahal adinako
ahal adinbat
ahal beste
ahal bezain
ahal bezainbat
ahal bezala
ahal izate
ahalke iz. *Batez ere Ipar.*
ahalke izan. *da ad. Batez ere Ipar.: hartaz ahalke naiz; semearen ahalke dira.*
ahalkearazi, ahalkearaz, ahalkearazten. *du ad. Ipar.*
ahalkegabe izond. *Ipar. Sin. lotsagabe*
ahalkegabekeria iz. *Ipar. Sin. lotsagabekeria*
ahalkegabeki adlag. *Ipar. Sin. lotsagabeki*
ahalkegabetasun iz. *Ipar. Sin. lotsagabetasun*
ahalkegabetu, ahalkegabe/ahalkegabetu, ahalkegabetzen. *da/du ad. Ipar. Sin. lotsagabetu*
ahalkegarri izond. *Ipar. Sin. lotsagarri*
ahalkeizun
 ahalkeizungarri* e. **ahalkegarri**
 ahalkerazi* e. **ahalkearazi**
ahalkeria 1 iz. *Jas. 'ahalkea'* 2 iz. pl. *Jas. 'lotsariak'*
ahalketi izond. *Ipar. Sin. lotsati*
ahalketsu izond. *Ipar. g.er.*
ahalketu, ahalke/ahalketu, ahalketzen. *da/du ad. Ipar. Sin. lotsatu*
ahalkor izond. *Ipar. Sin. lotsati; lotsakor; lotsor*
ahalmen
ahalmentsu izond. *g.g.er. 'ahaltsua'*
ahalorde iz.: *abokatuari eskura eman zion ahalordea.*
ahalorotako izond. *g.er.*
ahaltasun
ahaltsu
ahaltsutasun iz. *g.er. 'ahalmena'*
ahamen
ahamenda
ahamenka
ahamenkatu, ahamenka/ahamenkatu, ahamenkatzen. *du ad.*

ahantzarazi, ahantzaraz, ahantzarazten. *dio ad.*
ahantzi, ahantz, ahantzten. *da/du ad.*
ahanzgarri iz. 'ahantzarazten duena': *oi hau oinazea, beste guztien ahanzgarria!*
ahanzkor
ahanzmendu iz. *g.er.*
ahanzte
ahantzura
ahapaldi
 ahapean* e. **ahopean**
ahapeka adlag. *Batez ere Ipar.*
 ahapeko* e. **ahopeko**
ahapetik adlag. *Batez ere Ipar.*
aharantza iz. *Ipar. Zah. 'mintzaera'*
ahardi
ahari
ahari-joko edo **ahari joko** *Sin.*
ahari-talka, **ahari talka;** **ahari-topeka,** **ahari topeka**
ahari-talka edo **ahari talka** *Sin.*
ahari-joko, **ahari joko;** **ahari-topeka,** **ahari topeka**
ahari-topeka edo **ahari topeka** *Sin.*
ahari-joko, **ahari joko;** **ahari-talka,** **ahari talka**
ahariki
ahariko
aharito iz. *Bizk. 'ahari(ko)a'*
aharra iz. *Sin. ahakar*
aharrari izond. *Ipar. 'liskartia'*
aharratu, aharra/aharratu, aharratzen. *da ad. Ipar. 'liskartu'*
aharrausi
aharrausi egin
aharrausika
ahartzartz iz. *Batez ere Zub. 'aharia'*
 ahatar* e. **ahotara**
ahate
ahatebeltz iz. *Melanitta nigra*
ahateki
ahatekume
ahatetipi iz. h. **zertzeta**
ahats izond. *Zah. 'zikina'*
ahatsar (herritarra)
 ahausi* e. **adausi**
 ahazabal* e. **ahozabal**

ahazgarri**ahazkor****ahazmen** iz. *g.er.***ahazte****ahaztu**, ahatz, ahazten. *da/du/zaio* ad.:*euskaraz hitz egiten ahaztu zaio;*
bigarren galderari erantzutea ahaztu
*zaio.***ezin ahaztuzko**ahazuri* e. **ahozuri** edo **aho-zuri****aheri** iz. *Zah. g.er.* 'kantu doinua'aheria* e. **ahoeri****ahetz** iz. *Ipar.***ahetzar** (herritarra)**ahi****ahiarazi**, ahiaiaz, ahiaiazten. *du* ad.**ahikor** izond. 'ahitzen dena'**ahitu**, ahi/ahitu, ahitzen. *da* ad. 'agortu,
bukatu'**ahitze****ahizpa****ahizpaorde****ahizpatzako****ahizperdi** iz. *Ipar.* eta *Naf.***aho** iz.: *ahotik ezin utzi(zko)a.***aho-artatzaile****aho batez****aho-bero** edo **ahobero** izond.**aho bete** edo **ahoa bete**: *ahoa bete*
hortz gelditu edo utzi; aho bete
*haginekin utzi edo gelditu.***aho betean** edo **ahoa betean**:
gezurrik doilorrenak ahoa betean
*jaurtiz.***aho beteka** edo **ahoa beteka****aho beteko** edo **ahoa beteko****aho betez** edo **ahoa betez****aho-ganga** edo **aho ganga** iz. *Ipar.*
'ahosabaia'**aho-korapilo** edo **aho korapilo****ahoko soinu****aho-mihi** [kasu-markaren batekin
erabiltzen da, eta pluralean edo
mugagabeen]: *jendeen aho-mihiek*
aldatu dute izen zaharra; aho-mihitan
erabiltzen dute maiz auzi hori;
*gizalditik gizaldira aho-mihiz heldua.***aho-soinu** edo **aho soinu****ahotan****ahotan erabili****ahotan hartu****ahotik ahora****ahoz****aho-zabal** edo **ahozabal** izond.**aho zabalik****aho zabalka** edo **ahozabalka****ahoz aho****ahoz behera****ahoz gora****ahozko****aho-zuri** edo **ahozuri** izond.

'mokofina'

aho bateko* e. **ahobatezko****ahobatezko****ahobero** edo **aho-bero** izond.**ahoberokeria****ahoberritu**, ahoberri, ahoberritzen. *du* ad.**ahobizar****ahoeri** iz. 'ahoko eritasuna, bereziki mihian
eta inguruetan gertatzen diren
zaurixka batzuetan datzana'**ahogozatu**, ahogoza, ahogozatzen. *du* ad.**ahogozo****ahokada****ahokaleku****ahokatu**, ahoka, ahokatzen. *du* ad.**ahoko** 1 iz. *pl. Ipar.* 'hortz, hagin
ordezkoak' 2 iz. 'zaldiei-eta ahoan
jartzen zaien uhala'**aholatz** iz. (*Rhinonemus, Ciliata,*
Gaidropsarus eta *Lepidion*
generoetako arraina)**aholegar****aholkatu**, aholka, aholkatzen. *du* ad.:
norbaitek norbait zerbait egitera
aholkatu; aholkatu zuen Adan hark
*ere har zezan sagar hartatik. Sin.***aholku eman****aholku****aholku-batzorde** edo **aholku****batzorde**: *Euskararen Aholku*
*Batzordea.***aholku eman****aholkulari****aholkularitza****ahomen** 1 iz. 'omena, ospea'

ahomen 2* e. **ahamen**
 ahopats* e. **aupats**
ahopean
ahopeko
ahopildu, ahopil, ahopiltzen. *du* ad.
ahopilo iz. *Ipar. g.er.* 'ahobizarra'
ahoratu, ahora/ahoratu, ahoratzen. 1 *du*
 ad. 'ahora eraman' 2 *zaio* ad. 'ahora
 etorri'
ahosabai
ahoskabe izond. *Fon.*
ahoskarazi, ahoskaraz, ahoskarazten. *dio*
 ad.
ahoskatu, ahoska, ahoskatzen. *du* ad.
ahoskera
ahostun izond. *Fon.*
ahotara
ahotaraka
ahots
ahotz 1
 ahotz 2* e. **arotz**
ahozabal edo **aho-zabal** izond.
ahozabalka edo **aho zabalka** adlag.
ahozapi iz. *Sin. ezpainzapi*
ahozkotasun
 ahozpez* e. **ahuspez**
 ahozpeztu* e. **ahuspeztu**
ahoztegi iz. 'lastategia'
ahozuri edo **aho-zuri** izond. 'mokofina'
ahuakate iz. *Persea gratissima*
ahuakateondo
ahuku
ahul
ahulaldi
ahularazi, ahularaz, ahularazten. *du* ad.
ahuldade iz. *Gip.*
ahuldu, ahul/ahuldu, ahultzen. *da/du* ad.
ahuldura
ahuleria iz. 'indar falta'
ahuletsi, ahulets, ahulesten. *da/du* ad. *Ipar.*
g.er. 'ahuldu'
ahulezia
ahulgarri izond. eta iz. 'ahultzen duena'
ahulgune iz. 'gune ahula'
ahulkeria iz. 'kemen falta'
ahulki
ahultasun

ahultxo izond. eta adlag. (*ahul* -en
 txikigarria)
ahultzaile izond. *g.er.*
ahulune iz. 'ahulaldia'
ahulxko izond. eta adlag. (*ahul* -en
 txikigarria)
 ahume* e. **auma**
ahuntz
ahuntz-azienda edo **ahuntz azienda**
ahuntz-erdara
ahuntz-hosto edo **ahuntz hosto** iz.
 'atxaparra' *Lonicera sp.*
ahuntz-praka iz. *Cheiranthus sp.*
ahuntz-talde edo **ahuntz talde**
ahuntzadar iz. *Pistacia terebinthus*
ahuntzain
ahuntzama
 ahuña* e. **antxume**; **ahuñe**
ahuñe iz. *Zub.* 'antxumea'
ahunzki iz.
ahur 1 iz. 'eskuaren barrualdea': *anartean*
ahur betez aberats dadila; ahur bat
irin. 2 izond. *Mat., Fis.:* poligono
ahurra. Sin. konkabo
ahurka
ahurreta iz. *Zub.* 'ahurtara'
ahurtara
ahurtaraka
ahurtiar (herritarra)
ahuspeka adlag. *Ipar. g.er.* 'ahuspez'
ahuspekatu, ahuspeka/ahuspekatu,
 ahuspekatzen. *da* ad. *Ipar. g.er.*
 'ahuspeztu'
ahuspez
ahuspezka
ahuspezkatu, ahuspezka/ahuspezkatu,
 ahuspekatzen. *da* ad. *Naf.* 'ahuspeztu'
ahuspeztu, ahuspez/ahuspeztu,
 ahuspezten. *da* ad.
ahutz
ahutzeko iz. *Zah.* 'masailekoa'
ai *Sin. aiei*
ai ene interj.
aialdeko iz. *Naf.*
aiar (herritarra)
aiarar (herritarra)
aiba *Heg. Lgart.*
aida 1 (behi-idiei eragiteko hitza)

aida 2 Bizk.: *aida batean* ('berehala').

aidaka

aidanez* e. **agidanez**

aiduru

aiduru egon

aiduru gelditu

aiegiar (herritarra)

aiei Sin. **ai**

aieika

aieka iz. 'aldea, alderdia'

aienatu, aiena, aienatzen. *du ad.*

aienatzaile izond. *g.er.: ilunpeen aienatzailea.*

aiene

aieneka

aieneko iz.

aieru

aieruka

aieska iz. 'aienea'

aiez adlag. *Zah.* 'aieneka'

aiez egon

aiezka adlag. *g.er.* 'aiez'

aihen

aihen-belar edo **aihen belar**

aihen ezker 'ezker-aihena'

aihendu, aihen/aihendu, aihentzen. *da ad.* 'aihenak, kimuak erne'

aihenzuri iz. *Clematis vitalba*

aiher

aiher izan. 1 *da/zaio ad.*

'zerbaiten/zerbait egiteko gogoia edo gorrotoa izan': *aiher dira zernahi esateko; eskoletako gizon gazteei zen gehienik aiher; ardoari aiher natzaio; Herodias aiher zitzaion Joan*

Bataiatzaileari. 2 *du ad.* 'zerbaiti gorrotoa izan': *eriak lau paretak aiher ditu; zenbat etsai dituen aiher!*

(Batzuetan 'zerbait egiteko nahia izan' ere adieraz dezake: *hau da aspaldi aiher izan dudana*)

aiherrak egon: *zu ikusteko aiherrak nago.*

aiherkunde

aihertar (herritarra)

aihertu, aiher/aihertu, aihertzen. 1 *da ad.* 'makurtu' 2 *zaio ad.* 'kontra egin'

aiho iz. *Zub. g.er.* 'nahia, desira'

aihotz

aika adlag. 'aieneka'

aiko-maiko iz. *Batez ere Bizk.*

aila iz. *Bizk.* 'buztana'; 'txortena'

ailagina adlag. *Bizk.: meza batek balio du Jesu Kristoren pasioak ailagina; zergatik maite dute euren burua ailagina?*

ailaginako izlag.: *besteen ailaginakoak dira horiek.*

ailara

ailaragin

ailatsu izond. *Bizk.* 'buztan handikoa'

ailegatu, ailega, ailegatzten. *da ad.* *Batez ere Gip. eta Batez ere Naf. Herr.* 'iritsi, heldu'

ailis* e. **airis**

ailorbe iz. *Trigonella foenum-graecum*

aimant iz. *Ipar. Zah. g.er.* 'iman-harria'

aimara (hizkuntza)

aina* e. **adina**

ainar iz. *Ipar. eta Naf.* 'txilarra'

ainara iz. h. **enara**

ainarba iz. *Zub.* 'armiarma'

ainbaga* e. **hainbarik**

ainbagako* e. **hainbako**

ainbagarik* e. **hainbarik**

ainbarik* e. **hainbarik**

ainbat* e. **adinbat; hainbat**

ainen* e. **añen**

aineneko* e. **añeneko**

ainenti* e. **añenti**

aingabe* e. **hainbarik**

aingeru iz.: *aingeru aurpegia zuen.*

aingeru begirale

aingeru-belar edo **aingeru belar**

Angelica officinalis

aingeru gaizto

aingeru guardako

aingeru jagole *Bizk.*

aingeru-kanpai edo **aingeru kanpai**

'aingeru-belarraren lorea'

aingeru-lore edo **aingeru lore**

aingeru zaindari* e. **aingeru**

zaintzaile

aingeru zaintzaile

aingerukeria

aingeruki 1 adlag. *g.er.*
aingeruki 2 iz. 'aingeruzko izakia'
aingerutasun iz. *g.er.*
aingerutu, aingeru/aingerutu, aingerutzen.
da/du ad. 'aingeru bihurtu'
aingerutxo
aingeruzko
aingira iz. *Anguilla anguilla*
aingira morea *Murena helena*
aingura
ainguragile
ainguragintza
ainguratoki
ainguratu, aingura/ainguratu, ainguratzen.
du ad. 'ontzia aingura bidez finkatu'
ainharbear (herritarra)
ainhizar (herritarra)
ainhoar (herritarra)
 ainitz* e. **anitz**
aintza
aintzagarri izond. 'aintza merezi duena,
 goresgarria'
aintzaka
aintzakotzat 'aintzat'
aintzakotzat eduki
aintzakotzat eman
aintzakotzat hartu
 aintzaldu* e. **aintzatu**
aintzat
aintzat eduki
aintzat eman
aintzat hartu
aintzatsu izond.
aintzatu, aintza/aintzatu, aintzatzen. *du* ad.
aintzazko
aintzildar (herritarra)
 aintzin* e. **aitzin**
aintzira
aintzura iz. *g.g.er.* 'irudia'
ainube 1 iz. *Bizk.* 'laiotza, ospela' 2 izond.
Bizk. 'itzaltsua'
ainuri iz. *Naf. g.er.* 'intzeria, zinkuria'
 ainutsu* e. **lainotsu**
aio
aiots iz. 'intzeria, aienea'
aipaezin
aipagarri

aipaldi iz. *Ipar.* 'aipamena'
aipamen
aiparazi, aiparaz, aiparazten. *dio* ad.
aipatu, aipa, aipatzen. *du* ad.
aipatzaile iz. *g.er.*
aipu
aipu izan. *du* ad.: *hura zen hemen aipu dugun gizona.*
airakor izond. *g.er.*
airaldi iz. *Ipar.* 'hegaldia'
airarazi, airaraz, airarazten. *du* ad.
airatu, aira, airatzen. *da/du* ad.
aire 1: *itsasoko arrainak eta aireko txoriak.* 2 *Ipar.* 'doinua' 3 'antza, itxura'
aire! 'alde!'
airean 1 'ernai, urduri':
beldurrak/beldurrez airean egon, utzi.
 2 'azkar, presaka': *zoaz hemendik airean.*
airean eduki
airean egon
 aire-armada* e. **aireko armada**
aire berean *Ipar.* 'laster'
 aire-bidaia* e. **aireko bidaia**
aire-bide edo **aire bide**
aire gaizto 1 'tximista' 2 'perlesia'
 aire-garraio* e. **aireko garraio**
aire girotu: *aire girotua jarri dute.*
aire-girotze
 aire-indar* e. **aireko indar**
aireko armada
aireko bidaia
aireko garraio
aireko indar
aire-konpainia edo **aire konpainia**
aireko posta
aire-posta edo **aire posta**
airetik adlag. *Ipar.* '(pilota-jokoan) pilotak lurra ukitu aurretik' *Sin.* **airez**
aire txar 'perlesia'
airez adlag. *Heg. Sin.* **airetik**
airez aire
aireberritu, aireberri, aireberritzen. *da/du* ad.
aireberritze
 airedromo* e. **aerodromo**

aireko iz. *Ipar.* 'hegazkina'
 airenautika* e. **aeronautika**
aireontzi
aireplano iz. *Zah.* 'hegazkina, airekoa'
aireportu
aireratu, airera, airerutzen. *da/du* ad.
aireratze: *aireratze-pista.*
airetikako iz. eta izlag. *g.er.*
aireztapen
aireztatu, airezta, aireztatzen. *du* ad.
airis izond.: *ogi airisa, legamiarik gabea.*
airos izond. eta adlag. *Ipar.*
airoski adlag. *Ipar.*
airoso adlag. *Heg.:* *airoso erabili du hamaika arroako harria.*
airostu, airos/airostu, airosten. *da/du* ad. *Ipar.*
aisa h. **aise**
aisatu, aisa/aisatu, aisatzen. *du* ad. 'erraztu, eramangarriago egin'
aise
aiseki
aiseria iz. *Ipar.* 'aisetasuna, erosotasuna'
aisetasun
 aisetu* e. **aisatu**
aisia
aisialdi
aisit izond. *Ipar.* eta *Naf. Zah.* 'erraza, arina'
 aislamendu* e. **isolamendu** (*Fis.*, eta bestetan hobestekoak diren *bakartze*, *bakantze*, *baztertze*, etab.)
 aislatu* e. **isolatu** (*Fis.*, eta bestetan hobestekoak diren *bakartu*, *bakandu*, *baztertu*, etab.)
aita
aita-ama pl.
aita-amaginarreba pl.
aita-ama ponteko pl.
aita besoetako
aita familiako
aita nagusi 'komentu bateko burua'
aita ponteko
aita usteko
aitabisaba iz. 'birraitona'
aitabitxi
aitaginarreba

aitagoi iz. h. **aitalehen**
aitagure iz. (Gure Aita otoitzaren izen zaharra)
aitaita iz. *Zub.*
aitaizun iz. *g.er.* 'aitaordea'
aitajaun 1 iz. 'aitona' 2 iz. 'aita pontekoa'
aitakide
aitakiro adlag. *g.er.*
aitaldeko izlag. *g.er.*
aitalehen
aitamatu, aitama/aitamatu, aitamatzen. *da* ad. 'aita-ama bihurtu': *aita-amek, aitamatu direnetik, ez dakite gehiago zer den amodioa.*
 aitamen* e. **aipamen**
aitaorde
aitaren
aitaren batean
aitaren egin
aitarenka
 aitasaba* e. **aitona**
aita saindu *Ipar. Jas.*
aita santu
aitasantutu, aitasantu, aitasantutzen. *da/du* ad. *g.er.*
aitasantutza
aitaso iz. *Ipar.* 'aitona, arbasoa'
aitasotu, aitaso/aitasotu, aitasotzen. *da* ad. *Ipar. g.er.*
aitatar izond. 'aitaren itxura edo joerakoa'
aitatasun
aitatiar izond. 'aitari atxikia'
aitatu 1, aita/aitatu, aitatzten. *da/du* ad. 'aita egin'
aitatu 2, aita/aitatu, aitatzten. *du* ad. h.
aipatu
aitatxi
aitatxo iz. [mugagabeen erabiltzen da]: *eman aitatxori; aitatxok esan bezala.* (*aita* -ren txikigarria; haur-hizkeran, aita)
aitatzako
 aitatze* e. **aipamen; aipatze**
aitaurren iz. *Zah. g.er. Sin.* **aitalehen**
aitaxo iz. *Ipar.* (*aitaso* -ren txikigarria)
aitazko izlag.: *Jainkoaren aitazko ontasuna.*
aitazulo

aitita iz. *Bizk.*

aitita-amama pl. *Bizk.*

aitona

aitona-amona pl.

aitondu, aiton, aitontzen. 1 *da* ad. 'aitona bihurtu' 2 *da* ad. 'aguretu' 3 *da* ad.

'aitonaren trazak hartu'

aitonen alaba* e. **aitoren alaba**

aitonen seme* e. **aitoren seme**

aitontasun

aitor

aitor egin

aitor eman

aitor-entzule

aitor izan. *du* ad.

aitorde* e. **aitaorde**

aitoren alaba

aitoren seme

aitorketa iz. *g.er.* h. **aitorpen**; **aitortza**

aitorkizun

aitorkuntza iz. *Bizk. g.er.*

aitorlari* e. **aitorle**

aitorle 1 iz. 'aitortzailea' 2 iz. 'aitor-entzulea'

aitorleku

aitormen

aitorpen

aitorra eman* e. **aitor eman**

aitorrazazi, aitorraraz, aitorrarazten. *dio* ad.

aitorrera 1 iz. 'lekukotasuna' 2 iz. *g.er.* 'aitormena'

aitorrezin

aitortegi iz. *Erl.*

aitortu, aitor/aitortu, aitortzen. 1 *du* ad. 2 *da* ad. '(bekatuen) aitortza egin'

aitortza

aitortzaile

aitortze

aitu* e. **aditu**

aitzakia

aitzaki-maitzaki

aitzakiatu, aitzakia/aitzakiatu, aitzakiatzen. *du* ad. *g.er.* 'zuritu, aitzakiak atera': *zeure ezjakinak aitzakiatzen zaitu.*

aitzi *Ipar. g.er.:* *neskatxaren nahiaren aitzi edo kontra; liberalkeriari aitzi.*

aitziko 'aurkakoa'

aitzin

aitzina

aitzinean

aitzineko

aitzinerera adlag.: *Erregeren aitzinera heldu zenean; begien aitzinera.*

aitzinetik

aitzinetiko izlag. *Ipar.*

aitzinez aitzin *Ipar.* 'aurrez aurre'

aitzinako* e. **antzinako**

aitzinalde

aitzinamendu

aitzinapen* e. **aitzinamendu**

aitzinarazi, aitzinaraz, aitzinarazten. *du* ad.

aitzinarazle iz. *g.er.*

aitzinasmo

aitzinat* e. **aitzina**

aitzinatu, aitzina/aitzinatu, aitzinatzen.

da/du ad. 'aurreratu'

aitzinzatze iz. *g.er.* 'eragilea, sustatzailea'

aitzinzatze

aitzinzazale iz. *g.er.* 'aurrerazalea'

aitzindari

aitzindaritasun

aitzindaritza

aitzindegi iz. 'aitzinaldea'

aitzindu, aitzin/aitzindu, aitzintzen. *zaio* ad. 'aurea hartu'

aitzineko 1 iz. 'arbasoa' 2 iz. 'aitzindaria'

aitzinerat* e. **aitzinerera**

aitzineratu, aitzinera/aitzineratu, aitzineratzen. *du* ad. 'aitzinerera, aurrera, ekarri'

aitzin-gibel 1 adlag. 2 iz.

aitzingidari 1 h. **gidari** 2 h. **aitzindari** 3 h. **buruzagi**

aitziniala* e. **aitzinerera**

aitzinirudi

aitzinkontu

aitzinsolas

aitzinttoan adlag. *Ipar.* 'pixka bat lehenago'

aitzintxe adlag. 'lehentxeago'

aitzintxean adlag. 'lehentxeago'

aitzintxetik adlag. 'lehentxeago'

aitzitik**aitzur****aitzur-begi** edo **aitzur begi****aitzurreen** adlag. 'aitzurraz lurra lantzen'aitzurdin* e. **haitzurdin****aitzurka** 1 adlag. 'aitzur-ukaldika' 2 adlag. 'aitzurreen'**aitzurkada** iz. 'aitzur-kolpea'**aitzurketa****aitzurketan:** *aitzurketan aritu;*
*aitzurketan egin; aitzurketan jardun.***aitzurlari****aitzurrotx** iz. 'bi edo hiru hortzeko aitzur modukoa'**aitzurtu**, aitzur/aitzurtu, aitzurtzen. *du* ad.**aiui** iz. *g.er.* 'oihua, garrasia'**aiuika****aiuma** iz. *g.er.***aiumentu** iz. *Heg. Beh.* h. **udal;**
udaletxe**aiurri****aiuta****aiutari** iz. *g.er.* 'laguntzailea'aiutatu* e. **lagundu**aiutatzaile* e. **laguntzaile****aiutu** izond. *Bizk.***aixkol** iz. *Lathyrus sativus***aizarnazabaldar** (herritarra)**aizaro** iz. *g.er.***aizina** iz. *Ipar.* 'astia, beta'**aizirizar** (herritarra)**aizkatu**, aizka, aizkatzen. *du* ad. *g.er.*
'uxatu, haizatu'**aizkolapustu** iz. 'aizkora-apustua'**aizkolari****aizkoljoko** iz. 'aizkora-jokoa'**aizkolketa** iz. *g.er.*aizkol kirten* e. **aizkora-kirten** edo
aizkora kirten**aizkora****aizkora-aho** edo **aizkora aho****aizkora-apustu** edo **aizkora apustu****aizkora-begi** edo **aizkora begi****aizkora-buru** edo **aizkora buru****aizkora-joko** edo **aizkora joko****aizkora-kirten** edo **aizkora kirten****aizkora-kolpe** edo **aizkora kolpe****aizkoran** adlag.: *gaztetatik hasiak aizkoran ikasten; aizkoran bezain trebea da laiaketan eta goldea erabiltzen.***aizkora-ukaldi** edo **aizkora ukaldi****aizkoragile****aizkoragintza****aizkorakada****aizkorol** iz. *g.er.* 'aizkoraz landutako ohola'**aizolbe** iz. *Ipar. g.er.* 'haizeak jotzen ez duen tokia'aizpa* e. **ahizpa****aizpil** iz. *Sorbus torminalis***aizta** iz. *Bizk. h.* **ahizpa**aiztamakil* e. **astamakila; lantza****aizto****aiztokada****aiztur** iz. pl. *Sin.* **guraize; artazi****aizun** izond. 'faltsua'**ajangiztar** (herritarra)**aje****ajeatu**, ajea, ajeatzen. *da* ad. *Heg.*ajedrez* e. **xake**ajustadore* e. **doitzaile****ajustatu**, ajusta, ajustatzen. 1 *da/du* ad.*Zah.* 'bat etorri tratuan' 2* *da/du* ad.'neurrian jarri' e. **doitu; aurrindu;****egokitu** 3* *da/du* ad. 'pieza bat beste batean doi sartu' e. **ahokatu****akabaila** iz. 'bukaera, amaia'**akabantza****akabatu**, akaba, akabatzen. 1 *du* ad.'animaliak bortxaz hil' 2 *da/du* ad.'amaitu, bukatu' 3 *du* ad. 'azken ukituak egin'**akabatzaile** iz. 'azken ukituak egiten dituen'**akabatze****akabera****akabo****akabo izan.** *da* ad. *Ipar.:* *han akabo izanen dira gaitz guztiak.***akabu** iz. *Bizk.* 'amaiera': *jaien akabuko egunean.***akaburengoan** adlag. *Bizk.* 'hilzorian'**akademia**

atrizio iz. *Sin.* **beldur-damu, beldur**
damu
atrofia iz. 'endurtzea'
atrofiatu, atrofia/atrofiatu, atrofiatzen. *da*
ad. 'endurtu'
atseden 1 iz.
atseden egin *Bizk.* 'atseden hartu':
atseden egiteko leku egokia da hau.
atseden hartu
atseden 2, atsedena, atsedeten. *du ad. g.er.* (
atsedeten (egon)) bezalako
 esapideetan erabilia)
atsedenaldi
atsedenarazi, atsedena, atsedena, atsedena.
du ad.
atsedendu, atsedena/atsedendu,
 atsedentzen. *da ad.* 'atseden hartu'
atsedengarri
atsedenleku
atsedentegi iz. *Zah.* 'atsedenlekua,
 atsedentokia'
atsedentoki
atsedete iz. *g.er.* 'atsedena, atsedena'
atsegale 1 iz. *Goi.* 'atseginzaletasuna' 2
 izond. *Goi.* 'atseginzalea'
atsegin izond. eta iz.
atsegin egin
atseginekin adlag. *Ipar.*
atsegin eman
atseginez adlag. *Heg.*
atsegin hartu
atsegin izan. *du/zaio ad.*
atsegin-kontentu
atsegin-poz
atsegin-sari edo **atsegin sari 1** adlag.
 'doan' 2 iz. 'eskupekoa, erregalua'
atseginaldi
atseginbide iz. *g.er.*
atsegindu, atsegin/atsegindu, atsegintzen.
da/du ad.
atsegindun izond. *g.er.*
atsegingarri
atseginkeria iz. *g.er.*
atsegintasun
atsegintegi iz. *g.er.*
atsegintoki
atsegintsu
atseginzale

atseginzaletasun**atsekabe**

atsekabeen lagundu: *atsekabeen laguntzen dizut.* (doluminetan)

atsekabe egin *Zah.* 'atsekabetu'

atsekabe eman edo **atsekabea eman**

atsekabe hartu edo **atsekabea hartu**

atsekabedun izond. eta iz. *g.er.*

'atsekabetua'

atsekabegarri iz. eta izond. *Zah.*

atsekabetsu

atsekabetu, atsekabe/atsekabetu, atsekabetzen. *da/du* ad.

atsekabeztatu* e. **atsekabetu**

atsekaitz 1 iz. *g.er.* 'atsekabea' 2 izond. *g.er.* 'gozakaitza'

atsitu izond. *Batez ere Bizk. Sin. kirastu*

atso (hitz markatua da, gutxiespen balioa du eskuarki, eta ezin erabil daiteke *adineko* -ren sinonimo oso balitz bezala)

atso-agure pl. gehienetan

atso-besta edo **atso besta** *Naf.*

atso-ipuin edo **atso ipuin**

atso sorgin

atsokeria iz. 'sinetsi behar ez den ipuina edo kontua'

atsolor iz. *Gip.:* *erditu berriari atsolorra egin.*

atsotasun**atsotitz**

atsotizlari iz. *g.er.* 'atsotitzak aztertzen dituen pertsona'

atsotu, atso/atsotu, atsotzen. *da* ad.

atu* e. **hatu**

atuan* e. **atoan**

atun 1 iz. *Thunnus*

atun-txori edo **atun txori** *Sternina paradisea*

atun 2 iz. *Zah.* 'ohitura'

atungorri iz. *Thunnus (Thunnus) thynnus*
Sin. hegalabur

atunketa iz. 'atunaren arrantza'

atunketari

atuntxiki iz. *Sarda sarda*

atunzuri iz. *Thunnus (germo) alalunga*
Sin. hegaluze

aturatu, atura, aturatzen. *du* ad. [batez ere ezezkoetan erabilia] *Bizk.* 'norbaitekin edo zerbaitekin ezin ezer lortu, ezin ezer burutu': *ume honekin ezin dut aturatu.*

atx interj. (harridura, ezustea, mina adieraztekoa)

atx egin

atxakia* e. **aitzakia**

atxapar iz. *Lonicera sp.*

atxeki* e. **atxiki**

atxengi* e. **borragoma**

atxeter iz. *Ipar. g.er.* 'sendagilea'

atxiki 1, atxiki, atxikitzen. 1 *zaio* ad.: *hormari atxikitzen zaion huntza bezala.* 2 *du* ad.: *hitza atxiki zuen.*

atxiki 2 iz. 'joko zikina'

atxiki handi (pilota-joko bat)

atxiki txiki (pilota-joko bat) *Sin. joko garbi*

atxikiarazi, atxikiaraz, atxikiarazten. *dio* ad.

atxikidura

atxikimendu

atxikipen iz. *Admin.*

atxikitasun

atxikitzaile

atxilo

atxilo egin

atxilo egon

atxilo ekarri

atxilo hartu

atxiloketa

atxilotu, atxilot/atxilotu, atxilotzen. *du* ad.

atxilotze

atximur

atximur egin

atximurka

atximurka egin

atximurkada

atximurkatu, atximurka/atximurkatu, atximurkatzen. *du* ad.

atximurtu* e. **atximurkatu**

atxitu* e. **atzitu**

atxitzaille* e. **atzitzaille**

atxitze* e. **atzitze**

atxo iz. *Lgart.* (*atso* -ren era adierazkorra)

atxon iz. *Batez ere Naf.* 'urrina'
atxondar (herritarra)
 atxurdir* e. **haitzurdir**
 atzalburu* e. **kapitulu; atalburu**
atzamar 1 iz. h. **atzapar** 2 iz. *Bizk.* 'hatza'
 atzamar-oskol edo **atzamar oskol**
 Bizk. 'azazkala'
 atzamartu* e. **atzaparkatu**
atzandel 1 iz. *Bizk.* eta *Gip.* 'titarea' 2 iz.
 Bizk. eta *Gip.* 'hatzetan babesgarri gisa
 jartzen den zorroa'
atzapar iz.: *atzaparra bota; atzaparra*
 erantsi.
atzapardun
atzaparka
 atzaparka egin
atzaparkada
atzaparkari
atzaparkatu, atzaparka/atzaparkatu,
 atzaparkatzen. *du* ad.
atzaparpe [batez ere leku-denborazko
 atzizkiekin erabiltzen da, gehienetan
 atzaparpean forman]
atzapartsu
 atzapartu* e. **atzaparkatu**
atzapartzar
atzar 1 izond. *Ipar.* g.er. h. **atzarri**
atzar 2 iz. *BNaf.* g.er. 'ardi zahar antzu eta
 haragitarako gizendua'
atzarki iz.
atzarrarazi, atzarraraz, atzarrarazten. *du*
 ad. *Ipar.*
atzarrarazle
atzarri 1, atzar, atzartzen. *da* ad.
atzarri 2 izond.
atzartasun
atzartu, atzar/atzartu, atzartzen. *da* ad.
atzartze
atzazal iz. *Batez ere Bizk.* h. **azazkal**
 atzazkal* e. **atzoskol; azazkal**
atze 1 iz.
 atzea eman
 atzean adlag.
 atze-atzeka adlag.: *atze-atzeka hasi,*
 ibili, sartu.
 atze-aurre iz. pl.
 atzeko izlag.
 atzeko alde

atzekoz aurre adlag. g.er. 'atzekoz
 aurrera'
atzekoz aurrera
atze 2 izond. 'ahaidea ez dena'; 'arrotza'
atzealde
atzeka 1 izond. 'lagunartea saihesteko
 joera duena'
atzeka 2 adlag. 'atzera eginez'; 'atzea
 emanez'
atzekari iz. *Mat., Fil., Hizkl.*
atzeki iz. g.er. 'isatsa'
atzeko 1 iz. 'lemazaina, ontziko nagusia' 2
 iz. g.er. 'arrotza'
atzelari iz. 'kiroletan atzean jokatzen duen
 jokalaria'
atzemaile izond. eta iz. *Ipar.*
atzeman, atzematzen. *du* ad.
atzemanarazi, atzemanaraz,
 atzemanarazten. *dio* ad.
atzemanka adlag.
atzemate
atzen ord. *Bizk.* eta *Gip.* 'azkena'
atzenean adlag. 'azkenean'
atzeneko izlag. 'azkeneko'
atzenengo izlag. 'azkeneko'
atzenez adlag. 'azkenez'
atzenarazi, atzenaraz, atzenarazten. *du* ad.
atzendu, atzen/atzendu, atzentzen. *da/du*
 ad.: *euskara atzendurik zuen, nahiz ez*
 erabat ahazturik.
atzenkor izond. 'ahanzkorra'
atzera 1 adlag.: *atzera jo.*
 atzera-aurrera 1 iz. 2 adlag.: *atzera-*
 aurrera ibili da.
 atzera egin *Sin.* **gibelerat egin**
 atzera gelditu: *ez da atzera gelditzen*
 diren horietakoa.
atzera 2 adlag. 'berriro, ostera'
 atzera egin (berriz egin)
 atzera ekarri
 atzera esan
 atzera etorri
atzerabide
atzeragarri 1 iz. g.er. 'oztopoa' 2 izond.
 g.er. '(zerbait) atzeratzen duena'
atzerago
atzeraka
 atzeraka egin

atzerakada**atzerakarga****atzerako 1** iz. *g.er.* 'itzultzen den diru xehea' 2 iz. *g.er.* 'itzulbidea'**atzerako 2** iz. 'atzerakuntza, uzkurtasuna':
*atzerakoa ematen du inoren lanetan sartzeak.***atzerakoi****atzerakoikeria****atzerakoitasun****atzerakuntza****atzerapauso****atzerapen****atzerarazi**, atzeraraz, atzerarazten. *du ad.***atzeratasun** 1 iz. 'lotsa, uzkurtasuna' 2 iz. '(pertsonek, herrien) atzerapena'**atzeratu**, atzera/atzeratu, atzeratzen. *da/du ad.***atzerri****atzerrialdi** iz. *Sin.* **erbestealdi****atzeriratu**, atzerrira/atzerriratu,
atzerriratzen. *da/du ad.***atzeritar****atzeritartasun****atzesku****atzetiko** 1 iz. 'jarraitzailea' 2 iz. 'ondorengoa'**atzetu**, atze/atzetu, atzetzen. 1 *da ad. Ipar. g.er.* 'atzerriratu' 2 *da ad. Ipar. g.er.* 'arroztu'**atzimurtzi** iz. *g.er.* 'zimikoa'**atzipe** iz. *g.er.* 'engainua'atzipe egin* e. **atzipetu****atzipetu**, atzipe/atzipetu, atzipetzen. *du ad.***atzipetzaile****atzitu**, atzi, atzitzen. *du ad.* 'atzeman': *bi erbi atzitu dituzte oihanean.***atzitzaile****atzitze****atzizki****atzo**: *atzo* gero; *atzo ezker*o.**atzoko** 1 izlag. 2 adlag.: *atzoko bukatua behar genuena gaur bukatuko dugu.***atzoskol** iz. *Bizk.* 'azazkala'**au** (txakurraren zaunkaren onomatopeia)**aube** iz. *Bizk.* 'amaginarreba'**audientzia** 1 iz. *Zah. h.* **auzitegi**;**entzutegi** 2 iz. *Zah. h.* **entzuleria**;**entzuleak** 3 iz. *Zah. h.* **entzunaldi****audiobisual** izond. h. **ikus-entzunezko****audiograma** iz. *Fis.***audiologia** iz. *Med.***audiometria** iz. *Fis.***auditorio 1** iz. *Zah. g.er.* 'entzuleak, entzuleria'auditorio 2* e. **entzunareto**; **auditorium****auditorium** iz. *Sin.* **entzunareto****aufa** interj.**auhen****auhendagarri****auhendatu**, auhenda, auhendatzen. *du ad.***auhenka****aujame** iz. *Batez ere Zub. g.er.* 'mamua'**auka 1** iz. 'alga'**auka 2** iz. 'ahotza, gari-alearen azala'**auka 3** adlag. 'au eginez, zaunkaka'**aukera** iz.: *aukeraren maukera, azkenean okerra.***aukerako** 1 izlag. 'aukeran dagoena' 2 izlag. 'egokia, bikaina'**aukera-maukera****aukeran****aukerabide****aukeraketa****aukerakizun** iz. *g.er.***aukerakotasun****aukeramen****aukerarazi**, aukeraraz, aukerarazten. *dio ad.***aukeratu**, aukera/aukeratu, aukeratzen. *du ad.***aukeratzaile****aukeratze****auki** iz. *Bizk. eta Gip. g.er.* 'mihura'**aulestiar** (herritarra)**aulki****aulkidun** izond. *g.er.:* *euskaltzain aulkiduna.***aulkigile**aulkigin* e. **aulkigile****aulkigintza****aulkitxo****auma** iz. *Bizk.* 'antxumea'

aunatu* e. **unatu**
aunitz h. **anitz**
 auno egin* e. **anu egin; unatu**
aupa
aupada
aupadaka
aupats iz. *Bizk.* 'korrokada'
aupatu, aupa/aupatu, aupatzen. *du* ad.
aurbera iz. *Bizk.* 'aldapa'
auria iz. 'ulua'
aurikula iz. (bihotzaren partea)
aurio 1 iz. 'urretxoria' *Oriolus oriolus* 2
 izond. '(haur) geldoa'
aurizki, aurizki, aurizkitzen. *du* ad. *Zah.*
 'oinkatu, zapaldu'
auriztar (herritarra)
aurka
 aurka egin
 aurkako
aurkakotasun
aurkapen iz. *Zuz.*
aurkari
aurkaritza
 aurkatasun* e. **aurkakotasun**
 aurkaz* e. **aurkez**
aurkez adlag. 'aurrean, aurrez aurre':
 jauretxearen aurkez eseria zegoen.
 aurkez aurke 'aurrez aurre'
aurkezle
aurkezpen
 aurkeztaile* e. **aurkezle**
aurkeztatu, aurkezta, aurkeztatzen. *du* ad.
 g.er. 'irudikatu'
aurkezte
aurkeztu, aurkez/aurkeztu, aurkezten.
 da/du ad.
aurki 1 iz. (*ifrentzu* -ren aurkakoa)
aurki 2 adlag. 'laster'
aurki 3 adlag. *Bizk.* 'noski, antza,
 dirudienez'
aurkiarazi, aurkiaraz, aurkiarazten. *du* ad.
aurkiberri iz. *Batez ere Ipar.*
 'aurkikundea'
aurkibide
 aurkientza* e. **aurkintza**
aurkigaitz izond. *g.er.:* *liburu*
 aurkigaitzak.

aurkigarri iz. *Zah. g.er.* 'aurkibidea'
aurkikunde
aurkikuntza
aurkile iz. *g.er.* 'egilea, autorea'
aurkimen iz. *g.er.* 'aurkikundea'
aurkintza
aurkitegi
aurkitu, aurki/aurkitu, aurkitzen. *da/du* ad.
aurkitzaile
aurkitze
aurpegi
 aurpegia atera 'aurpegia eman,
 (norbaiten) alde egin': *guk ere*
 aurpegia atera behar dugu maisuaren
 alde.
 aurpegia eman edo **aurpegi eman**
 aurpegia izan *Heg.:* *eskatzeko*
 aurpegirik ez dutelako, laguntzarik
 gabe gelditu dira.
 aurpegian eman *Zah.* 'aurpegira
 eman'
 aurpegira bota
 aurpegira eman
 aurpegira esan *Heg.*
 aurpegiz aurpegi
 aurpegiz ezagutu
aurpegiera
aurpegiratu, aurpegira/aurpegiratu,
 aurpegiratzen. 1 *du* ad. 'aurpegira
 eraman' 2 *dio* ad. 'aurpegira bota'
aurre
 aurrea eraman: *zortzi metroko*
 aurrea daramakio.
 aurrea hartu
 aurrean bidali: *haserretu zen*
 irakaslea eta aurrean bidali zituen
 ikasleak.
 aurrean egon
 aurrean eraman: *trenak aurrean*
 eraman zuen umea.
 aurrean hartu: *aurrean hartuta*
 kalera bidali zuten gizagaixoa.
 aurre egin
 aurreko alde
 aurretik
 aurrez aurre
aurrealde
 aurre-asmu* e. **aitzinasmo**

aurrendenboraldi* e. **denboraldi-aurre**
aurregun iz. *g.er.* 'aurreko eguna, bezpera'
 aurrehistoria* e. **historiaurre** (historiaren
 aurreko garaia)
aurrehititera (hizkuntza) *Sin.* **hatiera**
aurreidazketa
aurreikusi, aurreikus, aurreikusten. *du ad.*
 h. **aurrez ikusi**
aurreikuspen
aurreirakurketa
aurreiritzi
 aurrekalde* e. **aurrealde**; **aurreko alde**
 aurrekanpaina* e. **kanpainaurre**
aurrekari
aurreko iz.
aurrekoz adlag.: *Donostian jaioa da,*
baina aurrekoz goizuetarra.
aurrekontu
aurrelan
aurrelari
aurren ord. 'lehena'
aurrenean
aurrenetik 'hasieratik'
aurrena adlag. 'lehenik'
aurrendari iz. 'aitzindaria'
aurreneko 1 izlag. 'lehena': *aurreneko*
zatian. 2 adlag. 'lehenik': *ondo hitz*
egiten ikasteko eskolak aurreneko
ireki zituena.
aurrenekoz adlag. 'lehenbizikoz'
aurrenengo 1 izlag. 'aurrekoa' 2 izlag.
 'aurrena, lehena'
aurrenesku iz. 'aurreeskua, lehena'
 aurrengo* e. **aurreneko**
aurrenik adlag. 'aurrena, lehenik'
aurreproiektu
aurrera
aurrera atera
aurrera egin
aurrera egon: *oso aurrera dago hori*
bere lantegian.
aurrera eraman
aurrera jo
aurrerako 1 izlag.: *hogei urtetik*
aurrerako gizonak. 2 adlag.:
oraindainokoaz damutzea eta
aurrerako asmo onak egitea.
aurrerakoan adlag. 'aurrerantzean'

aurrerabide
aurrerabidea eman
aurrerago
aurreragoko izlag. 'garrantzitsuagoa':
badugu aurreragoko lanik!
aurreraka
aurrerakada
aurrerakarga
aurrerakin iz.: *soldataren parte bat*
eskatu zuen aurrerakin gisa.
aurrerakoi
aurrerakoitasun
aurrerakuntza
 aurreramendu* e. **aurrerapen**;
aurrerakuntza; **aitzinamendu**
aurrerantzean
aurrerantzeko izlag.: *lehengo*
gaitzetatik sendatu, eta
aurrerantzekoetatik gorde.
aurrerapauso
aurrerapen
aurrerarazi, aurreraraz, aurrerarazten. *du*
ad.
aurreratu, aurrera/aurreratu, aurreratzen.
da/du ad.
aurreratzaile iz. *g.er.*
aurreratze
aurrerazale
aurreren ord. *Bizk.* 'aurrena, lehena':
aurrerena da gauzak ongi egitea.
aurrerengo izlag.
auresku
aureskulari
aurretiaz
aurretiko
aurretxo iz. *Jas.:* *arratsalde barea zen,*
iluntze aurrettxoa.
aurrez
aurrezenbaki iz.: *atzeritik telefonoz*
deitzen denean, aurrezenbakia
markatu behar da.
aurrezka adlag. *g.er.* 'kontra': *lege guztien*
aurrezka.
aurrezki
aurrezki-kutxa edo **aurrezki kutxa**
aurrezpen iz. 'aurrezkia, eskugaina'
aurreztaile

aurreztu, aurrez/aurreztu, aurrezten. *du* ad.

aurrindu, aurrin, aurrintzen. *da/du* ad.
Ipar. 'egokitu, bat etorri'

aurriritzi* e. **aurreiritzi**

aurritu, aurri, aurritzen. *da/du* ad. *Ipar.*
'hondatu, higatu'

aurrizki

aurtemein adlag. 'arestian, aspaldi ez duela'

aurten
aurtengo 1 izlag.: *aurtengo gabonak.*
2 adlag.: *aurtengo adina lan badugu hor.*

aurtiki, aurtiki, aurtikitzen. *du* ad. *Ipar.*
'jaurtiki'

aurtikiarazi, aurtikiaraz, aurtikiarazten. *du* ad. *Ipar.*

aurtikika adlag.: *birao aurtikika ibili;*
ostiko aurtikika hasi.

aurtikitzaile

aurtikitze

ausardia

ausarditsu

ausarditu, ausardi, ausarditzen. 1 *da* ad.
g.er. 'ausartu' 2 *du* ad. *g.er.* 'adoretu'

ausarkeria

ausarki 1 adlag. 'ausardiaz' 2 adlag. 'ugari'
ausarkian adlag. 'ugari, ausarki'

ausart
ausart izan. *da* ad. 'ausartu': *ez naiz ausart zure aitzinean agertzera.*

ausartasun
ausartsu* e. **ausarditsu**

ausartu, ausart/ausartu, ausartzen. *da* ad.

ausartze

ausartzia iz. 'ausardia, ausartasuna'

ausaz adlag. 'beharbada, apika'

ausazko izlag. *Sin.* **menturazko; zorizko**

ausente* e. **absente**

ausentzia* e. **absentzia**

ausiabar iz. 'ausiabartza'

ausiabartza

ausiki 1, ausikitzen. *du* ad.: *erleak inor ausikitzen duenean, ausikitzenago du bere burua.*

ausiki 2 iz.: *txakur horrek erausi gutxi, baina ausikia prest; kontzientziaren ausikia.*

ausiki egin

ausikiarazi, ausikiaraz, ausikiarazten. *dio* ad.

ausikika

ausikilari izond.: *txakur zaunkaria ez da ausikilaria.*

ausikitzaile
ausin* e. **asun**

auska iz. eta adlag. *Bizk.*
auskan egin 'borrokan egin'

auskalo
ausnar* e. **hausnar**

ausnarri iz. *Naf.* 'oinaztura, tximista'

austral izond.: *Ozeano Australa* (Ozeano Antartikoa).

australiar (herritarra)

austriar (herritarra)

autarkia

autarkiko

auteman* e. **hauteman**

autismo

autista

auto iz. *Sin.* **automobil; beribil**
auto-argi edo **auto argi**
auto-gidari edo **auto gidari**

autobia (Espainiako *autoviak* oraingo izendatzeko)

autobide

autobiografia

autobiografiko

autobus
autobus-geltoki edo **autobus geltoki**

autodefentsa

autodeterminazio

autodidakta

autoeskola iz. 'gidari-eskola'

autogestio iz.
autogidari* e. **gidari; auto-gidari** edo
auto gidari

autogobernu iz. *g.er.*

autografo

autokar

autoklabe iz. *Teknol.*

autokrata

autokritika	<i>aretoa; auzi-etena; auzi-gela; auzi-ikerketa.</i>
autoktono	auzi-etxe edo auzi etxe <i>g.er.</i>
automata	'auzitegia'
automatiko	auzi-ihesean egon <i>Zuz.:</i> <i>auzi-ihesean dago.</i>
automatikoki	auzi-ihesean izan <i>Zuz.:</i> <i>auzi-ihesean da.</i>
automatismo iz. <i>Teknol.</i>	auzi-iheslari
automatizatu , automatiza, automatizatzen. <i>du ad.</i>	auzi-maisu edo auzi maisu
automatizazio	auzi-mauzi
automobil iz. <i>Sin.</i> auto ; beribil	auzi-paper edo auzi paper
automobilari* e. gidari ; auto-gidari edo auto gidari	auzipean
automobilismo	auzitan adlag.: <i>auzitan ari izan;</i>
autonomia iz.: <i>Autonomia Erkidegoa;</i> <i>Autonomia Estatutua.</i>	<i>auzitan jarri;</i> <i>auzitan sartu.</i>
autonomiazale izond.	auzitara adlag.: <i>auzitara eraman;</i>
autonomi elkarte* e. autonomia-erkidego edo autonomia erkidego	<i>auzitara joan.</i>
autonomiko	auzialdi iz. <i>Zuz.</i>
autonomo	auzibide iz. <i>Zuz.</i>
autopista* e. autobide	auzigabetze
autopsia	auzigai iz.
autore	auzigela* e. auzi-gela edo auzi gela
autoretza	auzilari
autoritario	auzipetu , auzipe/auzipetu , auzipetzen. <i>du ad.</i>
autoritarismo	auzitegi
autoritate	auzitegi goren
autorizatu , autoriza, autorizatzen. <i>du ad.</i>	lan-auzitegi edo lan auzitegi
h. baimena eman	auzo 1 iz. 'auzotegia'
auto-stop: <i>auto-stop</i> egin beharrean <i>gertatu zen;</i> <i>auto-stopean joan zen</i> <i>Baionara.</i>	auzo-alkate edo auzo alkate
autozain	auzoan 1 adlag. 'inguruan': <i>auzoan ditugun erdarak.</i> 2 adlag. 'kanpoan, aparte': <i>ahuntza etxean, eta esnea auzoan;</i> <i>auzoan du horrek zentzu ona!</i>
autozale 1 izond. 'autoak maite dituenen' 2 iz. <i>Gip.</i> 'gidaria, auto-gidaria'	auzo-bide edo auzo bide
autozerbitzu iz. <i>Sin.</i> zerbitzu libre	auzo-herri edo auzo herri
autrigoi	auzo 2 iz. eta izond. 'auzokoa'
autu iz. <i>Bizk.</i> 'solasa'	auzo-etxe edo auzo etxe <i>Zub.</i> 'udaletxea'
autuan	auzo lehen <i>Sin.</i> lehen auzo
autu-mautu	auzoera iz. <i>Bizk.:</i> (<i>zerbait</i>) <i>auzoeran</i> egin (konfiantzaz egin).
autubatzaile izond. <i>Bizk.</i> 'esamesak biltzen eta kontatzen zale dena'	auzokide iz. 'auzoa, auzo berekoa'
auzapez iz. <i>Lap.</i> eta <i>BNaf.</i>	auzoko iz.
auzapezgo iz. <i>Lap.</i> eta <i>BNaf.</i>	auzolan
auzerri* e. auzo-herri	auzotar
auzi iz.: <i>auzia ipini;</i> <i>auziak garbitu;</i> <i>auziak zuritu;</i> <i>auzi eman</i> (<i>g.g.er.</i>); <i>auzi-</i>	auzotasun
	auzotegi iz. <i>Sin.</i> auzo

auzune**avestera** (hizkuntza)**axal** *Adkor.***axaleko** izlag. *Adkor.***axanpa****axekan** adlag. *Naf.* 'txantxetan'**axekatu**, axeka, axekatzen. *du ad. g.er.*

'xaxatu'

axeri iz. *Adkor.***axeriko** iz. 'azeriaren izena alegietan'**axioma****axo** iz. *Naf.* 'antxume emea'**axola** iz.: *ez dut horren axolarik.***axola izan.** *da/zaio/du/dio ad.: egia da hori, baina ez da axola; hori ez zaio axola; axola duten gauzetan, ez hitzetan; ez dio axolarik.***axolazko****axolagabe** izond.**axolagabekeria****axolagabetasun****axolagabetu**, axolagabe/axolagabetu, axolagabetzen. *da ad.***axolati****axolatsu****axolatu**, axola/axolatu, axolatzen. *da ad.***axolduri** izond. *Ipar. Zah.* 'arretatsua, arduratsua'**axolduritu**, axolduri/axolduritu, axolduritzen. *da ad. Ipar. Zah.***axuant** iz. *Ipar.* 'alkateordea'**axuri****axuriki** iz. 'axuriaren okela'**axut** interj. *Ipar.***aza** iz. *Brassica oleracea***aza gorri****aza-hosto** edo **aza hosto****aza-landare** edo **aza landare****azabatxe** iz. *Heg.* (ikatz distiratsu mota bat)**azaburu**azafata* e. **laguntzaile; harreragile****azafrai** iz. *Crocus sativus***azagrarr** (herritarra)**azai** iz. *Ipar. g.er.* 'oilagorra'**azakoba** iz. *Brassica oleracea capitata***azal****azaleko** izlag.**azaletik****azaletiko****azal-gorri** edo **azalgorri** izond.**azalarazi**, azalaraz, azalarazten. *du ad.***azalbide** iz. 'azalpena'azalburu* e. **kapitulu; atalburu**azaldata* e. **azaldu**azalde* e. **azalpen****azaldu**, azal/azaldu, azaltzen. *da/du ad.*azalduera* e. **azalpen**azaldura* e. **azalpen****azalera** iz. *Geom.* (neurria adieraztekoerabiltzen da soilik; bestetarako, *azal*[leun, zakar...], *gainazal*, *eremu*

[lurralde batena, adib.], etab. daude)

azaleratu, azalera/azaleratu, azaleratzen.*da/du ad.***azaleztapen****azaleztatu**, azalezta, azaleztatzen. *du ad.:**liburua azaleztatzeraz eraman zuten.***azalgorri** edo **azal-gorri** izond.**azalili** 1 iz. *Ipar. g.er.* 'azalorea' 2 iz. *Ipar.**g.er.* (irain-hitza, cf. bestetako*babalore* irain-hitza)**azalkeria**azalkizun* e. **azalpen**azalkuntza* e. **azalpen****azalmintz** iz. *g.er.* 'larruazala'**azalore** iz. *Brassica oleracea var. bortytis***azalpen****azalprintz** iz. *g.er.* 'larruazala'**azaltze****azaluskeria****azaluts** izond. *Jas.* 'itxurazalea, hipokrita'**azantz****azao****azaoka** adlag.**azarkatu**, azarka, azarkatzen. *du ad. Ipar.**Zah.* 'asmatu'**azarkeria****azarkuntza** iz. *Bizk.* 'ausardia'**azaro****azarri** izond. *Bizk.* 'ausarta'**azartasun** iz. *Batez ere Bizk.* 'ausartasuna, ausardia'

azartu, azar, azartzen. *da ad. Batez ere Bizk.* 'ausartu'

azazkal

azazkatu* e. **asaskatu**

azbizar* e. **hatz-bizar** edo **hatz bizar**

azefalo izond. *Biol.*

azeituna* e. **oliba**

azelerador* e. **azeleragailu**

azeleragailu

azeleratu, azelera, azeleratzen. *da/du ad.*

azelerazio

azelga* e. **zerba**

azelin

azenario iz. *Daucus carota*

azentu

azentuazio

azentudun izond.: *bokal azentudunak.*

azentuketa* e. **azentuazio**

azera* e. **espaloi**

azerbaijandar (herritarra)

azerbaijanera (hizkuntza)

azeri iz. *Vulpes vulpes*

azeri-belar edo **azeri belar**

Alopecurus pratensis

azeri-buztan edo **azeri buztan**

Equisetum sp.

azeri-dantza edo **azeri dantza**

azeriar (etnia-izena)

azerikeria

azeriki iz. 'azeriaren okela'

azerikume

azeritegi

azetiko izond. *Kim.*

azetilen iz. *Kim.*

azetilsaliziliko izond. *Kim.*

azetona iz. *Kim.*

azgura* e. **azkura**

azido

azidotasun

azienda iz. 'ganadua'

azienda beltz

azienda gorri

azienda handi

azienda larri

azienda xehe

azienda zuri

azieta iz. *Ipar. Sin. plater*

azio iz. *Heg. Herr.*

azitrai iz. *Satureja sp.*

azkaindar (herritarra)

azkar 1 izond. 'indartsua'

azkar 2 izond. 'lasterra, arina, buruargia'

azkar 3 iz. 'astigar arrunta'

azkaratear (herritarra)

azkargailu iz. eta izond. *Ipar.* 'sendotzen duena'

azkargarri iz. eta izond. *Ipar.* 'sendotzen duena'

azkarkeria

azkarki

azkartasun

azkartu, azkar/azkartu, azkartzen. *da/du ad.*

azkartzaile izond. 'azkargarria, sendotzailea'

azkazal iz. h. **azazkal**

azken

azkena eman

azken-aitzineko

azken-aurreko

azken-aurren

azkenaz goiti *Ipar. Zah.* 'azkenik, azkenean'

azken batean

azken beltz 'hondamendia'

azken-bigarren

azken buruan

azkenean

azkeneko

azkenekoz

azkenerako

azken esku 'atzeskua'

azkenetan 'hiltzeko, bukatzeko zorian'

azkenez

azken finean

azken igurtzi

azkenik

azken-nahi edo **azken nahi**

'hilburukoa, testamentua'

azkenaldi

azkendu, azken/azkendu, azkentzen. *da/du ad.*

azkendun izond.

azkenekotz* e. **azkenekoz**
azkenengo 1 izlag. 'azkenekoa' 2 adlag.
 'azkenekoz'
azkenengoz
azkengabe izond.
azkengabeko izlag.
azkengabetasun
azkenki
azkentze
azkoiendar (herritarra)
azkoin iz. (torlojuarena)
azkoitiar (herritarra)
azkon 1 'gezi txikia'
azkon 2 'azkonarra'
azkonar iz. *Meles meles*
azkor izond. *Bizk.* 'bizia, bizkorra'
azkordin iz. 'ospela'
azkordin-belar edo **azkordin belar**
azkortasun iz. *Bizk.* 'bizkortasuna'
azkortu, azkor/azkortu, azkortzen. *da/du*
ad. Bizk.
azku iz. *Jas.* 'kemena'
azkura iz.: *azkura izan zuen ezkerreko*
besoan.
azkura eman: *artile batzuek azkura*
ematen didate.
azkuratu, azkura/azkuratu, azkuratzen. 1
du ad. 'azkura eman, sortu' 2 du ad.
'desira edo irrika eragin'
azmetar (herritarra)
aznahi iz. 'azkura'
 azoge* e. **merkurio**
azoka
azokari iz. *g.er.* 'merkataria'
azolio
azorri iz. 'aza-orria'
azorria iz. *g.er.* 'zigorra'; 'zigorrada'
azorriatu, azorria/azorriatu, azorriatzen.
du ad. g.er. 'zigortu'
azosto iz. 'aza-hostoa'
azota iz. *Ipar.* 'nitrogenoa'
azotaldi iz. *Ipar.*
azotarazi, azotaraz, azotarazten. *du ad.*
Ipar.
azotatu, azota, azotatzen. *du ad. Ipar.*
azote iz. *Sin.* **zigor**
 azotea* e. **zabaltza**

azpantar
azpeitiar (herritarra)
azpel
azpi 1 iz. (aziendarekin erabiltzen dena)
azpiak atera
azpiak egin
azpi 2
azpiak jan
azpian eduki
azpian hartu
azpiko arropa
azpiko gona
azpikoz gainera *Bizk.* 'azpikoz gora'
azpikoz gora
azpikoz goratu, azpikoz gora/azpikoz
 goratu, azpikoz goratzen *g.er.*
 'azpikoz gora jarri'
azpitik 'isilpean'
azpitik eduki
azpitik goiti *Ipar.* eta *Naf.* 'azpitik
 gora'
azpitik gora
azpiz adlag. *Ipar.* 'azpitik, isilpean'
azpialde
azpiarmonian
azpiatal
azpibatzerde
azpibeltz iz. (perretxiko mota)
azpibide
azpiegitura
azpieuskalki
azpigarri iz.
azpiindize
azpijale
azpijan
azpijana egin
azpijanean 'azpijana egiten'
azpijoko
azpikari iz. 'azpilanean ari den pertsona'
azpikeria
azpiki iz. *Ipar.*
azpiko iz.
azpikotasun
azpikotu 1, azpiko/azpikotu, azpikotzen.
du ad. 'azpiko egin, menderatu'
azpil
azpilan

azpildu, azpil/azpildu, azpiltzen. *du* ad.
'azpildura egin, tolestu'

azpildura

azpimarkatu* e. **azpimarratu**

azpimarra

azpimarragarri

azpimarratu, azpimarra, azpimarratzen.
du ad.

azpimultzo

azpiratu, azpira/azpiratu, azpiratzen. *du*
ad.

azpiratzaile

azpisail

azpisarrera

azpisistema

azpisuge izond. 'saltzailea, saldukeriak
egiten dituen'

azpitalde

azpitudu

azpizar* e. **hatz-bizar** edo **hatz bizar**

azpizun iz. *Sin.* solomo

azpizuri iz. 'buztanzuria'

aztakatu* e. **haztakatu**

aztal

aztal-belarri edo **aztal belarri** *Ipar.*
'orkatila'

aztalka

aztapar iz. h. **atzapar**

aztaparka* e. **atzaparka**

aztaparkari* e. **atzaparkari**

aztaparkatu* e. **atzaparkatu**

aztapo* e. **oztopo**

aztar iz. *Jas. g.er.* 'aztarna'

aztarna

aztarna hartu

aztarnak atera

aztarnari

aztarnategi

aztarren iz. 'aztarna'

aztarrenak atera

aztarrenak hartu

aztarrika adlag.

aztarrikatu, aztarrika/aztarrikatu,
aztarrikatzen. *du* ad.

azteka (herritarra)

azterbide

aztergai

aztergaitz izond. 'aztertzen zaila'

aztergarri izond. 'aztertua izatea merezi
duena'

azterka adlag. 'aztarrika'

azterkari iz. *g.er.* 'aztertzailea'

azterkatu, azterka/azterkatu, azterkatzen.
du ad. *g.er.* 'aztertu'

azterketa

azterketari iz. 'azterketa egitera doana'

azterkizun

azterlan

azterlari iz. *g.er.* 'aztertzailea'

azterraldi

azterrarazi, azterraraz, azterrarazten. *dio*
ad.

azterren 1* e. **aztarren**

azterren 2* e. **azterketa**

aztertu, azter, aztertzen. *du* ad.

aztertzaile

aztertze

azti

aztiatu, aztia, aztiatzen. *du* ad.

aztiatze

aztigo iz. h. **aztitza**

aztikeria

aztiketa iz. *g.er.* 'aztikeria'

aztinantza iz. *Zah. g.er.* 'aztikeria'

aztitza iz.

aztoragarri

aztoramen

aztoratu, aztora, aztoratzen. *da/du* ad.

aztoratzaile

aztore iz. *Accipiter gentilis*

aztura

azturu iz. *g.er.* 'aztia'

azueloar (herritarra)

azufre* e. **sufre**

azukre

azukre-beterraba edo **azukre**

beterraba *Beta vulgaris var.*

saccharifera Sin. **azukre-**

erremolatxa, **azukre erremolatxa**

azukre-erremolatxa edo **azukre**

erremolatxa *Beta vulgaris var.*

saccharifera Sin. **azukre-beterraba,**

azukre beterraba

azukre-hauts edo **azukre hauts**

azukre-kanabera edo **azukre kanabera**
azukre-koxkor edo **azukre koxkor**
azukre-mokor edo **azukre mokor**
azukre-ontzi edo **azukre ontzi**
azukre-palmondo edo **azukre palmondo** *Arenga saccharifera*
azukre-tontor edo **azukre tontor**
azukregintza
azukretsu
azukreztatu, azukrezta, azukreztatzen. *du* ad.
azuleju iz. *Heg.*
azun izond. 'ernaria, ernari dagoena'
azunberdi iz. 'azunbre-erdia'
azunbre iz. *Bizk.:* *azunbre bat ardo.* (eduki neurria)
azundu, azun/azundu, azuntzen. *da/du* ad. 'ernaldu'
azuzena iz. h. **zitori**
b iz. 'euskal alfabetoaren bigarren letra'
ba 1 lok. h. **bada** (euskara mintzatuan — adibidez, elkarrizketetan—, onartzekoa da *ba* forma, maila neutroari *bada* forma dagokion arren)
ba 2 adlag. [elkarrizketetan, adib.] *Lap.* eta *BNaf. Beh.* 'bai': *ba edo ez.*
ba 3 interj.: *ba, ba! aski dugu!*
ba 4 [bereziki adizkera trinkoekin erabiltzen den hitza edo aurrizkia] *Gram.:* *ba ote dakizu?; badator.*
baba 1 iz. 'landarea' *Vicia faba 2* iz. 'larruazaleko handitu urtsua, urbatua, igurzteak sortutakoa' *Sin.* **babalarru**
3 iz. 'ardien-eta gorotz-alea' *Sin.*
babaka
baba beltz *Vicia faba var. minor*
baba gorri 'babarrun gorria'
baba handi *Vicia faba var. maior*
baba zuri
babaka iz. 'ardien-eta gorotz-alea' *Sin.*
baba
babalarru iz. *g.er.* 'baba, larruazaleko handitu urtsua'
babalarrutu, *babalarru/babalarrutu*, *babalarrutzen.* *da/du* ad. *g.er.* 'babatu'
babalore 1 iz. (*Vicia faba* -ren lorea) **2** izond. 'ergela': *hi haiz babalorea!*

babarrun iz. *Phaseolus vulgaris*
babatu, baba/babatu, babatzen. *da/du* ad. '(larruazaleko) babak atera'
babazorro iz.
babazuza
babero* e. **adur-zapi** edo **adur zapi**;
lerde-zapi edo **lerde zapi**
baberrun* e. **babarrun**
babes
babes-etxe edo **babes etxe**
babes-erakunde edo **babes erakunde**
babesgabe izond.
babesgabeko izlag. *g.er.*
babesgabetasun
babesgabetu, *babesgabe/babesgabetu*, *babesgabetzen.* *du* ad.
babesgarri iz. eta izond.
babesgune
babeski iz. (babesteko tresna)
babesle
babesleku
babesorri
babespe
babespean
babespeko
babespera
babestaile* e. **babesle**
babestoki
babestorri* e. **babesorri**
babestu, *babes/babestu*, *babesten.* *da/du* ad.
babel iz. 'metxa': *kandela mehe, txiki, babel laburrekoa.*
babeloniar (herritarra)
babo
babor* e. **ababor**
babuino iz. *Papio sp. Sin.* **papioi**
bada
badaezpada
badaezpada ere
badaezpadako
badarik edo **badarik ere** lok.
badere lok. *g.er.* 'bada ere'
badia
badminton
bafada

bafadaka adlag.

bafatu, bafa, bafatzen. *du* ad. [*nor* kasurik gabea] *g.er.* 'bafada jaurti'

bafle

baga 1 iz. 'uhina, olatua'

baga 2* e. **gabe**

baga uso* e. **pagauso**

bagai izond. *g.er.* 'alferra, nagia'

bagaje iz.

bagasoka iz. *Zah. g.er.* 'soka lodia'

bagadar (herritarra)

bage* e. **gabe**

bagil iz. h. **ekain**

bagina iz. *Sin. ematutu*

baginitis

bago* e. **pago**

bagoi

bagoneta

bahaismo iz. *Erl.*

bahamar (herritarra)

bahaola* e. **bahola**

bahe

bahegile

baheketa

bahekin iz. 'bahetzearen hondakina'

bahetu, bahe/bahetu, bahetzen. *du* ad.

bahi

bahiketa

bahikuntza

bahisari iz. 'bahitua berreskuratzeko ordaintzen den saria'

bahitegi

bahitetxe iz.: *Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea.*

bahitu, bahi/bahitu, bahitzen. *du* ad.

bahitura

bahituri iz. *Jas.* 'bahitua, bahitutakoa'

bahitzaile

bahitze

bahola iz. *Ipar.* 'bahea'

baholatu, bahola/baholatu, baholatzen. *du* ad.

bahraindar (herritarra)

bai 1 adlag. 2 iz.

bai... edo bai... ere: *bakoitzak ditu bere grinak, akatsak eta bai alderdi onak ere.*

bai... bai...

bai... baita... edo bai... baita... ere

bai eiki *g.er.* 'baiki'

bai eta edo **baita**

bai... eta bai... edo bai... eta bai... ere

bai eta... ere edo **baita** edo **baita... ere**

bai horixe

bai zera!

baia 1 iz. *Ipar. g.er.* 'akatsa'

baia 2 iz. *Bot.* (fruitu mota)

baia 3* e. **badia**

baia 4 [beti galde perpausetan] *Ipar.*

Gram. 'bai ote?': *etorriko da. Baia?*

baiatu, baia/baiatu, baiatzen. *du* ad. *Ipar. g.er.* 'gaitz erran, gaitzetsi': *egiazko alargunak ez ditu bertzeak inoiz ere kondenatu eta baiatu behar.*

baiduri iz. *g.er.* 'baimena'

baieki* e. **bai eiki**

baiesle

baiespen

baieste

baietsi, baiets, baiesten. *du* ad.

baietz 1 adlag. 2 iz.

baiez 1 iz. *g.er.* 'eztabaida' 2 iz. *g.er.* 'zalantza, ezbaia'

baiezka adlag.

baiezkako izlag.

baiezko iz.

baiezkoan 1 'baiezkoa delakoan':

baiezkoan nago. 2 'erantzuna baiezkoa bada'

baiezkor* e. **baikor**; **baiezko**

baiezkotan* e. **baiezkoan**

baiezipen* e. **baieztapen**

baieztapen

baieztatu, baiezt, baieztatzen. *du* ad.

baieztu* e. **baieztatu**

baigorriar (herritarra)

baiki

baiko *Zub.* 'bezain laster, orduko': *etzan baiko, loak hartu du.*

baikor

baikorki adlag.

baikortasun

baikoz* e. **baiko**

bailara iz. *Gip.* 'eskualde txikia' (ez da *haran* edo *ibar* -en sinonimoa)

baimen

baimena eman

baimendu 1, baimen/baimendu, baimentzen. *du* ad.

baimendu 2 iz. *Ipar. g.er. h. baimen*

baimendun iz. eta izond.

baina 1

baina 2* e. **leka**

baina 3* e. **zorro**

bainadore* e. **bainujantzi**

bainagia iz. *Batez ere Zub.* 'bainuontzia'

bainan* e. **baina**

bainatu, baina, bainatzen. *da/du* ad.

bainera* e. **bainuontzi**

bainilla* e. **banilla**

baino 1

baino 2

bainoago *Goi.*

baino bainoagoko: *euskaltzain batzuek, baino bainoagokoa bilatzen dute zenbaitetan (dagokion baino zehaztasun handiagoa bilatzen dute).*

bainu

bainua hartu

bainuetxe

bainugela

bainujantzi

bainuontzi

bainutegi

bainutoki

baionar (herritarra) *Sin. baiones*

baiones (herritarra) *Sin. baionar*

baioneta

bairikiar (herritarra)

baita edo **bai eta 1** lok.

baita edo **baita... ere** edo **bai eta... ere**

baita zera ere *Heg.* (aurrean esana ukatzeko edo hari buruzko desadostasuna agertzeko esamoldea)

baita 2 1 [ezkerrean daraman osagarriak pertsona izan behar du. Lekuzko kasuetan erabiltzen da, eta inoiz ere ez pluralean]: *zure baitan; zuen baitan; ni baitan; ene baitan.* (**perpaus baitan, *perpausaren baitan* ,

erabili perpausean, perpausaren barruan, perpaus barnean) 2 [inoren etxea izendatzeko, leku kasuetan, edo etxe izen gisa]: *medikuaren baitatik heldu naiz; "Martinbaita" deitzen da nire sortetxea.*

baitarik 'inork bultzatu gabe': *ez naiz neure baitarik plazara agertu.*

baitaratu, baitara/baitaratu, baitaratzen. *da* ad. (*neure, zeure... baitaratu* modukoetan erabiltzen da)

baitezpada

baitezpadako

baizen

baizik

baizik ere 'baizik eta'

baizik eta 1 'baizik' 2 *Ipar.* (perpaus konpletibo batzuen sarrerako marka)

bakaikuar (herritarra)

bakailao iz. *Gadus morhua*

bakailao-denda edo **bakailao denda**

bakailao-ontzi edo **bakailao ontzi**

bakailaoketari iz. 'bakailao-arrantzalea'

bakan

bakanetan adlag. *g.er.* 'gutxitan'

bakanal iz.

bakandu, bakan/bakandu, bakantzen. *da/du* ad.

bakanka adlag.

bakanketa

bakanki adlag.

bakantasun

bakante iz. 'bakanaletan parte hartzen zuen emakumezkoa'

bakantxo adlag. 'aukeran bakanegi'

bakantza iz. pl. h. **opor**

bakar

bakar-bakarra adlag. *Ipar. eta Naf. Sin. bakar-bakarrik*

bakarren bat

bakarren bat edo **beste**

bakarren batzuk

(**neure, zeure, bere**) **bakarrean**: *han zegoen gaixoa bere bakarrean malkoak egosten.*

bakardade iz. *Heg.*

bakarka

bakarkako izlag.
bakarzeria
bakarlari
bakarleku
bakarraldi
bakarrik
bakar-bakarrik
bakarrizketa
bakartar 1 iz. *g.er.* 'eremutarra' 2 izond.
g.er. 'bakartia'
bakartasun
bakartegi iz. *g.er.*
bakarti
bakartoki
bakartsu izond. *g.er.* 'bakartia'
bakartu, bakar/bakartu, bakartzen. *da/du*
ad.
bakartzte
bakarzale izond.
bakasta* e. **lakasta**
bakatu* e. **pagatu**; **ordaindu**
bakazio iz. pl. h. **opor**
bake
bakea eman
bakeak egin
bakean utzi
bake-epaile edo **bake epaile**
bake-epaitegi edo **bake epaitegi**
bakez
bakezko izlag.
bakezkoak egin
bakealdi
bakearazi, bakearaz, bakearazten. *du ad.*
bakebide iz. 'baketzeko bidea'
bakegile
bakegintza
bakeoso izond. *Heg. Beh.* h. **baketsu**
bakero 1* e. **unai**; **behizain**
baketi izond. *g.er.* 'baketsua'
baketiar izond. *Ipar.* 'baketsua'
baketsu
baketu, bake/baketu, baketzen. *da/du ad.*
baketzaile
baketze
bakezale
bakezaletasun
bakiotar (herritarra)

bako *Bizk.* 'gabeko'
bakoiti
bakoitz
bakoitzean: *Bilbora joan naizen bakoitzean.*
bakoizka adlag. *g.er.* 'banaka'
bakoizki adlag. *Ipar. Zah.* 'bakarrik'
bakoiztasun iz. *Goi.* 'bakoitza, bakarra denaren nolakotasuna'
bakoiztu, bakoitz/bakoiztu, bakoizten.
da/du ad. g.er.
bakotx* e. **bakoitz**
bakotxi* e. **bakoiti**
bakteria iz. h. **bakterio**
bakterio
bakteriologia
baktriar (herritarra)
baku iz. *Zub. g.g.er.* 'merkatua'
bakun
bakundu, bakun/bakundu, bakuntzen. *du ad.*
bakuntasun
bakuntza iz. *g.er.* 'ituna'; 'elkartzea'
bakuntze
bakutar (herritarra)
bal iz. *Ipar. g.er.* 'dantzaldia'
bala 1 iz. 'jaurtigaia' 2 iz. 'uzta-sorta lotua':
gari bala.
bala-bala adlag.: *berri pozgarriak bala-bala, tximista baino lehen, zabaldu ziren herri osoan.*
balada
baladre iz. (belar mota)
balaka iz. *g.er.* 'beea, marraka'
balakagarri
balakari izond. 'balakatzaila, losintxaria'
balakatu, balaka, balakatzen. *du ad. Sin.*
losintxatu
balakatzaille iz. *g.er.*
balaku
balakuka
balanbatu, balanba, balanbatzen. *da ad. g.er.* 'kulunkatu'
balanka* e. **palanka**
balantza
balantzan 1 adlag. 'zalantzan' 2 adlag. 'balantzaka'
balantzaka

balantze
balaustrada
balazo iz. *Heg.*
balazta iz. 'frenoa, galga'
balaztatu, balazta/balaztatu, balaztatzen.
du ad.
balbe
balbula iz.
balda iz. *Bizk.* '(liburuak-eta uzteko) apala'
baldan
baldankeria
baldanki adlag. *g.er.*
baldar
baldar-apez* e. **baldernapez**
baldarka
baldarkeria
baldarki adlag. *g.er.*
baldarrontzi
baldartasun
baldartu, baldar/baldartu, baldartzen.
da/du ad.
baldatu* e. **elbarritu**
balde 1 *g.er.* 'antzekoa' (x- *ren* 'balde
(izan) esapidean erabiltzen da)
balde 2 iz. (ontzi mota bat)
balderna iz. *Lap.*
baldernapez
baldi iz. 'estalkia, bereziki Itun Zaharreko
kutzarena'
baldin
baldin eta (*baldin* soila baino
gutxiago erabili izan da)
baldinba
baldinbaitere *Sin.* **baldinbere**
baldinbere *Sin.* **baldinbaitere**
baldinetariak lok. *Zah.* eta *g.g.er.*
baldinkizun iz. h. **baldintza**
baldinpetu* e. **baldintzatu**
baldintasun iz. *Zah. g.er.* 'baldintza'
baldintza
baldintza-agiri
baldintzapean
baldintzapeko izlag.: *baldintzapeko*
askatasuna.
baldintza-plegu* e. **baldintza-agiri**
baldintzazko
baldintzapen

baldintzatu, baldintza/baldintzatu,
baldintzatzen. *du ad.*
balditu, baldi, balditzen. *da/du ad. Ipar.*
'harritu'
baldoki iz. *g.er.* 'lokia'
baldosa iz. *Heg.*
baldosatu, baldosa/baldosatu, baldosatzen.
du ad. Heg.
baldraska izond. '(emakume) baldresa'
baldres
baldreskeria
baldrestu, baldres/baldrestu, baldresten.
da/du ad. 'baldres bihurtu'
bale interj. *Heg. Beh.* 'ados!'
balea iz. *Balaena sp.* eta *Neobalaena sp.*
eta *Eubalaena sp.* eta *Ziphius sp.* eta
Megaptera sp. eta *Eschrichtius sp.*
balea-arrantza edo **balea arrantza**
balea-bizar edo **balea bizar**
balea urdin
baleatzar
baleazale
balekibale adlag. *Lap.* eta *BNaf.*
'badazpada ere'
baleko izlag. 'gutxienekoa betetzen duena'
balekume iz. 'balearen umea'
balenki adlag. *Zah.* eta *g.g.er.*
balent izond. *Zah.* eta *g.g.er.*
balentria
balentzia iz. *Kim.*
baleontzi
baletzar* e. **baleatzar**
balezta 1 iz. 'geziak-eta jaurtitzeko arma' 2
iz. *Heg.* 'orekagailua' 3 iz. 'abereen
lepoko arku modukoa' 4 iz. *Zub.* 'sator
zepoa'
balezтари
balezтatu, balezta/balezтatu, balezтatzen.
du ad. '(abereei) balezta ezarri'
baliabide
baliagarri
balia izan* e. **balio izan**
baliakizun
baliarazi, baliaraz, baliarazten. *du ad.*
baliarraindar (herritarra)
baliatu, balia, baliatzen. 1 *zaio ad.:*
Jainkoa balia dakidala. 2 *da ad.:*

*adimenaz balia zaitez, ez indarraz. 3
du ad.: ez dugu hitz hori baliatzen.*

baliatzaile

baliatze

baliante izond. *Heg. Beh., Herr. h. ausart; suhar; adoretzu*

bali izan. *da ad. Ipar. 'legezko, baliozkoa izan'*

balin* e. **baldin**

balio

baliozko

balioanitz* e. **balioaniztun**

balioaniztun

baliodun izond. *Mat.*

balioetsi, balioets, balioesten. *du ad.*

baliogabe izond.

baliogabeko izlag.

baliogabetu, baliogabe/baliogabetu, baliogabetzen. *da/du ad.*

balio izan, balioiko. *du ad. (bi erabilerak onartzen ditu: zer balio du tematzeak?; ez du balio orain etxea konpontzen hastea)*

baliokide

baliokidetasun

baliokidetu, baliokide/baliokidetu, baliokidetzen. *du ad.*

baliokidetza

baliokidetze

balios izond. *Ipar.*

balioetasun* e. **balio**

balioetasun iz. *g.er. 'balioa'; 'baliagarritasuna'*

balioetsu

baliotu, balio/baliotu, baliotzen. *du ad. g.er. 'balioztatu'; 'balioa eman'*

balioztatu, baliozta, balioztatzen. *du ad.*

balixa* e. **baliza**

baliza 1 iz. *Ipar. 'maleta'* 2 iz. 'seinalea'

balizkako* e. **balizko**

balizko izlag.

balkarera (hizkuntza)

balkoi

ballet iz.

balmasedar (herritarra)

balneario* e. **bainuetxe**

baloi

balonbolea* e. **boleibol**

balontzesto* e. **saskibaloi**

baloraketa* e. **balorazio**

balorapen* e. **balorazio**

baloratu, balora, baloratzen. *du ad. h.*

balioetsi; balioztatu

balorazio iz. *Heg.*

balore 1 iz. *Lgart. h. adore; kemen*

balore 2 iz. *Ekon.: balore-burtsa.*

balota iz. *Ipar. Beh. 'fardela'*

balotzara iz. *Bizk. 'otarre estalkiduna'*

bals iz. (dantza mota)

baltiko izond.: *Itsaso Baltikoa.*

baltsa 1 iz. *Ipar. '(bizidunen) talde, multzo, elkarte'*

baltsan

baltsa 2 iz. *Ipar. 'lohia, lokatza'*

baltsamarazi, baltsamaraz, baltsamarazten. *du ad.*

baltsamatu, baltsama, baltsamatzen. *du ad.*

baltsamo

baltsamoztatu* e. **baltsamatu**

baltsatu 1, baltsa/baltsatu, baltsatzen. *du ad. Ipar. 'nahasi': baltsatu zuen bere ahogozoa lur gutxi batekin.*

baltsatu 2, baltsa/baltsatu, baltsatzen. *da/du ad. Ipar. 'lokatzu': zergatik baltsatzen da zerria lohian?*

baltse* e. **bals; baltseo**

baltseo iz. *Heg. Beh. 'dantza lotua'*

baltz* e. **beltz**

baltzu

balus* e. **belus**

bamakoar (herritarra)

bana banatz.: *liburu bana ekarri dute; etxe banatan bizi dira.*

bana-banako 1: *bana-banako erlazioa. Sin. biuniboko 2 'berezia, hautatua...': oso zen liburuzalea, eta liburutegi bana-banakoa zeukan; mutil hori bana-banakoa da.*

bana bertze *Ipar. 'batez beste'*

banaz bertze *Naf. 'batez beste'*

banabar iz. *Naf. 'babarruna'*

banaezin izond.

banaita* e. **desberdintasun**

banaka

banaka-banaka

banakaren bat
banakaren batzuk
banaketan adlag. 'gutxitan, bakan'
banakako izlag.
banakari iz. *g.er.* 'banatzailea'
banakatu, banaka/banakatu, banakatzen.
da/du ad.
banakatze
banaketa
banako iz.
banakola* e. **banatzaile**; **banaleku**
banakor izond. *Mat.*
banakotasun
banakuntza
banaleku
banalerro iz.: *isurialdeen banalerroa.*
banaloria iz. *g.g.er.*
banaloriatsu izond. *g.g.er.*
banan
banan-banan
banan-banango izlag. *Bizk.*
banana
banan-banako* e. **bana-banako**
banandu, banan/banandu, banantzen.
da/du ad.
banango izlag. *Bizk.*
bananondo iz. *Musa paradisiaca*
banapen* e. **banaketa**
banarazi, banaraz, banarazten. *du* ad.
banarazte
banasta iz. *Heg. g.g.er.* 'otarrea'
banatu, bana/banatu, banatzen. *da/du* ad.
banatzaile
banatze
banazka adlag. *Ipar.*
banba onomat.
banbu iz. *Bambusa sp.* eta *Arundinaria sp.*
eta *Dendrocalamus sp.*
banda
bandalo
bandatu, banda/bandatu, bandatzen. *du* ad.
g.er. 'tenkatu'
bandeja* e. **erretilu**; **azpil**
bandera
banderadun
banderari iz. *Ipar.* 'banderaduna'
banderatxo iz. 'bandera txikia'

banderaxka* e. **banderatxo**
banderilla
bandidu* e. **bidelapur**
bandil* e. **mandil**
bando
-en bando '-en alde': *nire bando ez dena nire kontra da.*
bandolari* e. **bidelapur** (eta, Iparraldean,
manduler)
bandurria
bangiar (herritarra)
bangkokar (herritarra)
bangladeshtar (herritarra)
banilla
banitate iz. *Zah. h.* harrokeria;
harrotasun; hutsalkeria
banjo
banjular (herritarra)
banka iz. h. **banku** (pl.)
bankalari* e. **bankari**
bankar (herritarra)
bankari iz. 'bankuaren jabea edo zuzendaria'
bankarrot iz. *Zub.* 'porrota'
banketa* e. **aulki**
bankete iz. *Zah. Herr.*
banketxe
bankisa iz. (izotz-geruza handia)
banku 1 iz. 'banketxea'
banku-langile edo **banku langile**
banku 2 iz. 'eserlekua'
bano 1 izond. *Ipar.* 'motela, makala, odolgabea'
bano 2 1 izond. 'hutsala, alferrikakoa' 2 izond. *Ipar.* eta *Naf.* 'segurtasunik gabekoa'
bano 3* e. **baino**
banoki 1 adlag. 'motelki, makalki'
banoki 2* e. **alferrik**
banpez onomat. *Ipar.* 'bat-batean'
banpiro 1 iz. *Fam. Desmodontidae* 2 iz. 'odol-xurgatzailea'
baño *Ipar.* eta *Batez ere BNaf.* 'batto, bat bakarrik'
bao iz. *Eraik.*
baobab iz. *Adansonia digitata*
bapedera* e. **bat-bedera**

bapo**bapo egin** 'ase'**bapore**baptisterio* e. **bataiotegi** (eta *bataio-leku*, *bataio-toki*)**bar** iz. h. **taberna; ostatu****bara** iz. (behinolako luzera neurria)**baraila 1** iz. *Bizk.* 'zalaparta, iskanbila'**baraila 2** iz. 'ahoaren beheko hezurra'**barailati** izond. *Bizk.* 'zaratatsua'**barailezur****barakaldar** (herritarra)**barakuilu****baranda 1** iz. *Zah.* 'balkoia'; 'galera' 2 iz.

'balkoi, zubi, zurubi eta kidekoen ertza babesten duen hesi modukoa, zutikako habetxoz eta horiek goialdean lotzen dituen hagaz osatua'

barandaila* e. **barantaila****barano 1** iz.: *gazte batzuk bildu zituen bere baranoan* ('bere inguruan').**barano 2** iz. *Varanus sp.***barantaila** iz. *Zub.* 'otsaila'**barañaindar** (herritarra)**bararazi**, bararaz, bararazten. *du ad.***barasoaindar** (herritarra)**baratari** iz. *Zah.* 'eskribaua, notarioa'**baratu**, bara, baratzen. *da/du ad. Ipar.* eta *Naf.***baratxe** adlag. *Ipar.* 'astiro'**baratxe-baratxe** *Zah.***baratxuri** iz. *Allium sativum***baratxuri-ale** edo **baratxuri ale** *Sin.***baratxuri-atal**, **baratxuri atal**;**baratxuri-zizter**, **baratxuri zizter****baratxuri-atal** edo **baratxuri atal***Sin.* **baratxuri-ale**, **baratxuri ale**;**baratxuri-zizter**, **baratxuri zizter****baratxuri-belar** edo **baratxuri belar***Alliaria petiolata***baratxuri-buru** edo **baratxuri buru**

1 'baratxuriaren erraboila' 2 'baratxuri-atala'

baratxuri-korda edo **baratxuri korda****baratxuri-salda** edo **baratxuri salda****baratxuri-zizter** edo **baratxuri****zizter** *Ipar. Sin.* **baratxuri-ale**,**baratxuri ale**; **baratxuri-atal**,**baratxuri atal****baratxuri-zopa** edo **baratxuri zopa**baratxuribelar* e. **baratxuri-belar** edo**baratxuri belar**baratxuriburu* e. **baratxuri-buru** edo**baratxuri buru**baratxurizter* e. **baratxuri-zizter** edo**baratxuri zizter****baratz** adlag. eta izond. 'baratxe, astiro (egina)'baratza* e. **baratze****baratze****baratze-kardu** edo **baratze kardu***Cynara cardunculus***baratze-marrubi** edo **baratze****marrubi** *Fragaria x ananassa*baratzegintza* e. **baratzezaintza****baratzekari** iz. h. **barazki****baratzezain****baratzezaintza**baratzuri* e. **baratxuri****barau** iz.: *barau-eguna*.**barau egin****barau izan.** *da ad. g.er.***baraurik****barautan** 'baraurik'**baraualdi****barauarazi**, barauaraz, barauarazten. *du ad. Ipar. g.er.***baraugile** iz.baraur* e. **barau****barausi**, barauستن. *du ad. Bizk. g.er.***barauts 1** iz. *Zah.* 'lerdea'**barauts 2** iz. 'zulatzeko lanabesa'**barauts-etxe****barautu**, barau/barautu, barautzen. 1 *da**ad.:* *berrogei egunez barautu zen**Jesus.* 2 *du ad.:* *lau denborak, bijiliak**eta garizuma barautuko dituzu osoki.***barautzaile** iz. 'baraugilea'**barautze****barauzaro****baraxtu**, baratx, baraxten. *da/du ad.*

'(urratsa) urritu, geldia gotu'

barazgile iz. *g.er.* 'baratzezaina'**barazkaldu**, barazkal, barazkaltzen. *da ad.**Zah.* 'bazkaldu'

barazkari iz. *Zah.* 'bazkaria'

barazki

barazki-denda edo **barazki denda**

barazki-jale edo **barazki jale** izond.

Sin. **begetariano**

barazkigintza iz.

barazkizaletasun

barbadostar (herritarra)

barbakoa

barbalot iz. *Batez ere Zub.* 'zomorroa'

barbantzu iz. h. **txitxirio**

bar-bar 1 adlag. (hizketa-hotsaren onomatopeia) 2 adlag. (dirakien uraren onomatopeia) 3 adlag. 'barra-barra'

barbarin iz. *Mullus sp.*

barbarindar (herritarra)

barbarismo iz.

barbarka adlag. 'borborka'

barbaro

barber iz. *Ipar.* eta *Naf.* 'barberua'

barberu 1 iz. *g.g.er.* 'odol-ateratzeak eta ebakuntzak egiten zituena' 2 h.

bizargile

barberutza

barbituriko

barbo iz. *Barbus sp.*

barda adlag. *Ipar.* h. **bart**

bardin* e. **berdin**

bardo

bardoztar (herritarra)

bare 1 iz. *Fam. Limacidae*

bare 2 iz. (erraia)

bare 3 izond. 'lasaia': *Ozeano Barea; bare-bare.*

barealdi

barearazi, **barearaz**, **barearazten.** *du* ad.

baregarri iz. 'baretzen duena'

baremo iz. *Tekn.*

baresare

baretasun

baretsu izond. *Jas.* 'barea, lasaia'

baretu, **bare/baretu**, **baretzen.** *da/du* ad.

barga 1 iz. 'amildegia' 2* iz. e. **garba** (*garrama*)

bargari* e. **garbari**

bargasta 1 iz. 'hazten ari den txerri emea' 2 izond. '(mutil eta, batez ere, emakume) ausart-lotsagabea'

bargatu* e. **garbatu**

bargatzale* e. **garbari**

bargo iz. 'hazten ari den txerri arra'

bargotar (herritarra)

bariabile* e. **aldagai**; **aldakor**

bariante* e. **aldaera**; **saihesbide**

bariantza iz. *Estat.*

bariazio iz. *Mus., Biol.*

barietate* 1 e. **aldaera** 2 e. **aukera**; **aniztasun**; **ugaritasun**

barik *Bizk.:* *argi barik.*

eten barik *Bizk.* 'eten barik dihardu beharrean'

bariku iz. *Bizk.* h. **ostiral**

barillastar (herritarra)

bario iz. *Kim.*

baritono

barize

barkabera

barkaberatasun

barka eskatu, **barka eska**, **barka eskatzen.** *du* ad.

barka eske

barkamen

barkamendu iz. h. **barkamen**

barkarazi, **barkaraz**, **barkarazten.** *dio* ad.

barkatu, **barka**, **barkatzen.** *du* ad.

barkazio iz. *Herr.* 'barkamena'

barkoxtar (herritarra)

barku

barkugintza iz. 'ontzigintza'

barla iz. *g.er.* 'eskorta'

barlasai iz. *Eraik.*

barna izond. 'sakona': *putzua barna da.*

-an barna postpos. (*-an barna - mendian barna- hedatuagoa da - tik barna -menditik barna- baino*)

barna hartu 'gaitzitu, biziki hunkitu': *esan diodana barna hartu du.*

barnagotu, **barnago/barnagotu**, **barnagotzen.** *da/du* ad. *g.er.*

barnatasun iz. *Ipar.* 'sakontasuna'

barnatu, **barna/barnatu**, **barnatzen.** *da/du* ad. 'sakondu, barrendu'

barnatze

barne 1 iz. 'barrena, barrua': *barne medikuntza*. 2 iz. *Ipar*. 'gela' 3 adlag.: *salneurria, 5000 pezeta, zergak barne; ekainaren zortzitik hamabira, egun biok barne.* (*-en barne egon e. -en barnean egon)

barnean

barne-arazo edo **barne arazo** pl.: *barne arazoetako ministroa.*

barne-bakarrizketa edo **barne bakarrizketa**

barne izan. *da* ad.: *hiru liburu lodi, tesia barne dela; Eskualtzale batzarrean barne direnak.*

barneko izlag.

barne-luzegoa* e. **habearte**

barnera

barneraino

barnetik

barnetikako edo **barnetiko**

barnez

barnez barne

barnealde

barneko iz. *Ipar*. (jantzi mota)

barnekoi izond. 'barrukoa, sakona'

barnekotasun 1 iz. 'barnekoa denaren nolakotasuna' 2 iz. *Log*. 'multzo bateko elementu izatearen ezaugarria'

barnera* e. **bolumen**

barnerakoi

barnerat* e. **barnera**

barneratu, barnera/barneratu, barneratzen. *da/du* ad.

barneratze

barnetasun* e. **barnatasun**

barnetegi

baroi

baroisa iz.: *Ezpeletako baroisa.*

barometro

barra 1 iz. 'palanka' 2 iz.: *bokaleko, ibai ahoko barra*. 3 iz. *g.er.* 'marra, zerrenda'

barraban izond. *Bizk.* 'barrabasa'

barra-barra

barrabas izond.

barrabas-belar edo **barrabas belar**
Oxalis latifolia

barrabaskeria

barrabil

